



Iturria: *Teatro osoa euzkeraz (II)*, Antonio Labayen.
La Gran Enciclopedia Vasca, 1976.

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LabaienMalentxo.htm>

MALENTXO, ALARGUN!

Antonio Maria Labaien

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

MALENTXO, ALARGUN!

Komeria iru ekitalditan

Nere emazte Karmeni

MALENTXO

Alargun gaztea. Beltzez jantzita agertuagaitik
gogoz eta soñez alai ta liraña.

PETRA

Malentxoren koñata. Ots! senar izan zuanaren
arriba nagusia...ta neskazarra...

XALBADOR

Tratalari jator eta bizkorra.
Malentxoren jaioterrikoa

D. BITOR

Bilbotar aundikia. Banku-zale ta...
zurrupatzaillea. Gizon zipotza.

D. JUSTO

Letradu jaun agurgarri ta otsaundikoa.

A. EDUBIJIS

D. Justoren emazte ta Petraren laguna.

IÑUDE

Etxeko neskame zarra Malentxori
bularra emana; eta Xalbadoren izeba

ANASTASIO

Lantegiko begirazale ta karguduna.
Larru-ontzalle, kapaiña. Mutilzar aguretua.



I. EKITALDIA

(Etxe-barru egokia baiñan batere apaintasunik gabe

Bai ordea bertan bizi al izateko eroso, arrotzai arrera ona egiteko aski leku dualarik. Txoko batean su-bazter edo berogarri-toki berezia. Inguruan zenbait mai, eser-leku ta sala batean oi diran aratz eta tresnak.

Esker-eskuira ate bana. Batetik sukaldera, bestetik almazen edo lantegira joateko gai diranak.

Ondar aldera leio ta ate aundi bat kalerako. Barrendik Erriko plaza ta etxeak ikusi bitez.

Oiala jasotakoan Malen su ondoan eserita dago esku artean zerbait lan ari duala. Buruan ordea beste gogotak darabilzki eta naigabe ta kezkaz beterik dagola agertzen dute; uste gabe zinkurin eta asperen aterazten dienak).

MALEN: Ai ene! Neri etorri zait bizimodua!... *(isilunea)*. Ain bakarrik nago! eta... *(norbait datorrela oartuaz)*. *(biziago)* Askotan naiago det bakarrik egon eta ez zenbait lagun gogaikarri inguruan ditudala... *(Kaleruntz begiratuta atsekabez)* Ai ene! esan badet, esan det... Jainkoak zigortu nau. Emen det koñata! Goizean gutxitan etorri oi da bada... *(Zai geldituaz)* Zer ote dakar?...

PETRA *(Kaleko atetik sarturik)*: «Ave Maria purisima!».

MALEN *(Ortz-tarteaz)*: «Pekatu barik sortua». *(Berekiko)* Ez nago aren larruan. *(Zutituaz)*.

PETRA: Jainkoak dizula egun on! Malen.

MALEN: Baita zuri ere Petra. Zer zabilta garai ontan?

PETRA: Arritzekoa da, bai. Elizarako besterik ez naiz ateratzen goizean, baiñan gaur, Edubijis, nere lagun ona, badakizu...

MALEN: Zera... On Justo letraduaren andrea...?

PETRA: Bai! Edubijis, nere lagun on orrek bada, zurekin itzegin nai du ta laguntzeko eskatu dit. Beraz, gaur arratsaldean zuregana etortzekoak gaituzu; ta goizetik sartu-atera auxe egin dizut, gaztigatzeagatik, etxean geldi zaitez. Ez ikaratu, Elizako Andre Katoliko ekintzaren izenean egin nai dizun bixita da.

MALEN: Ederki! Etxean izango nazute. Ez det kanpora ateratzeko asmorik. Gaur iñoiz baño gutxiago merkatu eguna izanik. Beti jendea espero bait det: tratalari, erostun eta gurekin artu-emanen dutenak. Baiñan eseri zaite Petra!

PETRA *(Eseriaz)*: Pozik gañera nere anai Tiburtzio ta zure senar maite izan zanaren etxean. Ondo langille ta zuzena izan zan gizarajoa *(Aitaren egñez, isilik «Requiem» esanaz)* *(Orobat Malenek)* Erakusbide ederra utzi zizun. Ez zuan ark etxea galduko, ez! Eta kontuak garbi ematen iñor ez bezelakoa. Eskuratu dezun negozioa jarraituaz lasa bizi zaitezke zuen aurren etorkizuna buruturik. Bi alabatxo kutunok izan bear dute zure kezka bakarra. Alargun gelditu zeran ezker.

MALEN: Etxeko gauzak ondo joan ditezen aleginduko naiz. Ez Tiburtziok bezin ongi. Ura aparta bait zan negoziotarako, baiñan arekin ikasi nuena ez zait aztuko.

PETRA: Zere burua estuasunen batean arkitzen badezu, zoaz konpianza osoan D. Justo letraduarengana. Zure senarraren lege-gizona, elizakoi ta jakintsua, aolku zuzenak emango dizkizuna.

MALEN: Orain arte ainbestean antolatzen ari naiz. Eskerrak gure Anastasiok etxeko gora-berak ondo dakizkila. Tratuak borobiltzen ez da ain yayoa, baiñan ortarako degu Iñuderen illoba Xalbador, mutil bizkorra bera; joan dan illean ere milla ardilarrutik gora ekarri zizkigun eta oso modu onean. Auxen da au tratalaria, ondo erosten eta obeto saltzen dakiana. Alkarrekin ondo konpontzen gera. *(Solosaldi bitartean naigabeak aztu zaizkio)*.

PETRA *(kopet-illun)*: Ez da itxurazkoa zu, edozein tratalarikin, nola nai jardutea. Andre alarguna zera, ta txoro asko ibilli oi dira peri ta merkatuetan, eta laineza artzen uzten badiezu...

MALEN: Uste nuke... baita zera ere!

PETRA: Zure izen onak eta Tiburtzio gizarajoa! senar izan zenduanari zor diozun itzalak ala eskatzen dute. Gogoan ar zazu betiko, ta ez aaztu, ama-familiakoa zerana, eta alabai eskola ona ta kristau erakusbidea eman bear diezula.

MALEN: Ez zait gelditzen beta aundirik. Sal-erosketako kontuak zuritu bear ditudala, batetik, almazen eta dendako ardura eta jendearekiko artuemanak bestetik, badet beti lan eta zeregiña.

PETRA: Ama baten lenengo eginbearra aurrek azi ta ezitzean dago. Denda ta negozioa kontu-artzaillearen eskutan joan ditezke. Ala-



batxoak—, nere illobak!, amaren magalean daude ondoenik.

MALEN: Bai noski! baiñan ni etxeoandreketan nai ta nai ez kanpoan ibilli bearra dedanez, aur gaixoak gustoena nere inñude zar Mañaxirekin daude, sukaldean. Onetxek aterazten dizkien irripar gozoak!

PETRA (*Eser lekutik jekiaz*) Umezurtz kutunak! Ez det joan nai ikusi gabe. Estula joan al zaie?

MALEN: Oraindik ez, osoro, baiñan askotzaz gutxiago dute.

PETRA: Beroa bear dute aurrak, beroa ta arropa gutxitxo eramaten ote duten nago.

MALEN: Izardi patsetan zeuden aristian. Gero berriz errez oztutzen dira.

PETRA: Eguraldia oztutzen asia da ta artillezko zamartxoak jantzi bear zenieke.

MALEN: Erosteke asmotan natzaizu negua sartu aurretik.

PETRA: Erositakoak baño, etxean eskuz egindakoak obeak dituzu... eta merkeagoak. Diruari ere begira bear zaio. Tiburtziok ondanez oparo utzi zindun. Alaz ta guziaz parra-parra erabili ezker txanponak errez doaz. Gaurko egunez arropa kostatzen danarekin.

MALEN: Bai, ala da. Norberak ezin egin dezakenean, ordea, almazena ematen dizkit lanak—! nai ta nai ez erosi egin bear. Gañera, esku-lanetan ez nazu oso trebe. Ozta-ozta nere galtzerdiak orratzaz saretzen dakit.

PETRA: Artille-lana orratz aundiaz egitea gauza erreza da. Nik asiko nizuke ta zuk ez zenuke jarraitu besterik. Eta azkeneko errematea burutuko genuke alkarren artean.

MALEN: Asiera eman bear orretarako.

PETRA: Beste egitekorik gabe etorriko naiz egunen batean. Noan illobatxo maiteak laztantzera... (*Sukalderuntz abitzen da eta Maleni begiratuaz dio*) Zu ere ariñegi jantzia zoaz... kolko ori!

MALEN: (*joaten uzten diolarik*) Ni?... (*berekiko*) Zergatik ez ote da bere etxean gelditu?... (*Zinkurin egñez*) Ai ene! Inoiz izango al naiz nere kolkoaren jabe!

(*bijoa sukaldera*)

(*Salbador tratalaria ta Anastasio almazeneko atetik sartzen dira. Azken onek, eskuan ardi larru bat dakarki.*)

ANASTASIO: Etxekoandrea emen da ta naiago det, zorrorek, berari zuzenean esatea. Nere iritzirako prezioa oso galestia da. (*larru bi eskuen artean zabaldu ta erakutzi*) 25 duro!

XALBADOR: Artzaiak ez dute gutxiagoan utzi nai. Guzia gora dioja.

ANASTASIO: Artillea igaz baño bi duro merkeago utzi bear izan dute bada.

XALBADOR: Artillea? besterik da...

ANASTASIO: Bai, artillea «lana» Kastilla aldean. Eta angoa ohea dan ezkerro emengo artzaiak naiko «lan» izango dute artillea saltzen. Joan dan urtean erositakoa ezin saldurik daukaguta. Ta okerrena ezin kobraturik... (*par egin bezate*).

XALBADOR: Anastasio, merkatari txarra zaitugu! Denda zuloan sarturik egonda ez da jakiten prezioen berri. A zer nolako «komertziantea» zu!

ANASTASIO: Ez komertziantea, ez merkatari eta ez tratalari, zure antzera. Ni «kapaña» izana besterik ez nazu. Zarrez lanerako gauza ez naizena. (*Isilago ta ingurua begiratuaz*) Etxe ontan, gaiñera zorra dago ugari. Zer nai dezu nik egitea?...

XALBADOR: Ezin dezakezute orrela jarraitu. Nik itzegingo diot etxeoandreari.

ANASTASIO: Naiko kezka badizu aspaldian. Alargun gelditu zan ezkerro bere gain zama aztuna erori zaio. Estu ta larri dabil gure damatxo.

XALBADOR: Ondo alai ta jostalaria zan bada ezkongaietan. Alako dantzari ta neskatxa mutil-zalegorik ez zan ballara guzian... Malentxo!

ANASTASIO: Ustez... ezkontza ona egin zuan, baiñan gaizki atera zaiona. (*isilpean*) Izan ere senarra alakoxea izan zuan. Ez dakit ez ote dagon obeto alargun...

XALBADOR: Neri esango didazu bada! (*oroimen zarrez posturik*) Onera nekame etorri zanean, alakoxea zan bai! Bikaña! Gure nagusia erabat kilika ta txoratu zuan eta ezkondu bazan ezkondu zan, Tiburtzio jaunarekin... Ez zion oso bizimodu ona eman... (*au gure arterako*) Esango nuke obeto dagola «alargun» ez balitz utzi dizkion zorreatatik eta utzi dion... koñatategatik... eta bi ume zirtzil... pixa-jario...

XALBADOR: Señorita «Petra»... Bai neska zar zorrotza, benetan...

ANASTASIO: Isildu zaitze gizona. (*Sukalderuntz begiratuaz*) Ez dezaigutela entzun. Or da nunbait. Sartzen ikusi det beintzat eta alde egiten dezanean etxeoandrea etorriko zaigu.



XALBADOR: Larru ta artillearen tratua nola dagon adieraziko diot jakiñean egon dedin.

ANASTASIO: Ez da motela ta antzemango dio. Buruz argia bait da. Balia-tzen dakina.

XALBADOR: Bada isilpean esaten dizut, Anastasio, gauza gora, oso gora joango dala Prantziatik eskea asi dalako. Orain da dirua irabazteko garaia.

ANASTASIO: Zuek, tratolariok ondo. Ni onuzkero ez naiz aberastuko.

XALBADOR: Zure etxea bai ordea. Zuretzat ere ez da gaizko etorriko.

ANASTASIO: Baldin baite! (*Ardi larrua berriz esku tartean erabilli ta azertuaz*). Askotxo eskatzen dute!

XALBADOR: Orain da erosteko garaia.

ANASTASIO: Dirua bear... Ara! emen degu etxeoandrea! Ea zer deriz-kion... Lengo zorrak ezin garbitu ditugu...

XALBADOR: Negozio garbia da...

ANASTASIO: Zikiñak ere ez nau ni ikaratzen.

(*Malen sukaldeko atetik agertzen da*)

MALEN: Egun on! Xalbador!

XALBADOR: Baita zuri ere etxeoandre!... Zure zai geunden.

MALEN: Ezer egiten uzten al didate bada?... Beti badet norbait. Eta lagun-tza ematera etorriko balira gaitz erdi.

ANASTASIO: Or izan dira dendan zaldibitarrak kobratzera etorriak. Ez dute itxoiteko konturik entzun nai.

MALEN: Betoze! Betoze!

ANASTASIO: Mutur ona jarri dute. Gaur zortzi ere emen izan ziran eta...

XALBADOR: Artzailleak estu izan oi dira.

MALEN: Bilboko gure Banko-zalea, gaur etortzekoa da dirua ekarriaz, eta kontu guziak zurituko ditugu. Eta ez geiago erosi, Anastasio, zor zaarrak ordaindu arte.

XALBADOR: Bada nere iritziz, etxeoandre, zor zaarrak alde batera utziaz, orain alik eta gai geiena erosteko sasoa da ta uste det, dirurik irabazi nai badezute.

MALEN: Orren bearrean gaude bada; bañan Bilboko etxeak arrapatu-rik gauzka, ta onek zer nolako prezio ordainduko digun jakin artean, ezin ezer erabazi al izango degu.

XALBADOR: Ikusten?... (*Larrua artu ta etxeoandreaki erakutsiaz*). Onoko onen neurrikoak berrogei bat eskeintzen dituzte. Arkume

larrutatik, berriz, bada sail aundi bat oso modu onean erosi ditekena. Nere tratolari-itzari sinistu nai badiozute, garestialdi gaitza dator, eta zuek ez badizute artzen, neronek erosiko ditut guziak, itxu-itxuan...

MALEN: Zuk dakizu ondoenik merkatuaren berri. Au da lanbidea! Zer derizkiozu Anastasio. Erosiko al ditugu?

ANASTASIO: Nere sakeletik ez beintzat. Utsa bait dago. Eta zor berriak egiteak ere bildurtzen nau.

XALBADOR: Ortarako da Kreditoa. Bankoak aurreratuko dizue. Negozioa eskutatik igesi egiten ikustea ere...

ANASTASIO: Bai, eta zorrak ezin ordainduz norbaitek ezurra ausiko ditzkit eta... Hospitalera! Zaldibiko okerrak mutur ona jarri dit!

MALEN: Au da gizon illuna! Itz onak emazkietzu, ta arratsaldean, bilbotarra etortzean zerbait jasoko du.

ANASTASIO: Naiogen nuke zeorrek esango bazenio... Nere itza ez baidu sinisten. Zuk bear bada limurtuko dezu, emakumea zera-ta...

MALEN: Ortan ere leiako naiz bada. Aspaldi egiten al det besterik...?

XALBADOR: Tratua lenbaitlen erabaki bearra dago.

MALEN: Goazen almazenera Anastasio (*Xalbadori*) Zuk Iñude ikusi naiko dezu.

XALBADOR: Jakiña! Izeba ikusi gabe ezin aterako naiz etxe ontatik. Asarretuko litzaidake.

MALEN: Or dezu sukaldean. Poz artuko du zu agurtuaz.

ANASTASIO: Berriketarako beti dago gertu. Itzbide emango dizu.

MALEN: Itza ezik salda pizka bat ere eskeñiko al dizu.

XALBADOR: Bai, ez nago toki txarrean amarretakoa artzeko. Or itxoingo dizuet (*sukalderuntz abituaz*)

ANASTASIO: Lasaiago zaude gu baño...

MALEN: Ez zaitezela izan llanturu.

ANASTASIO: Ez noski, bagenu nai aña diru...

(*Anastasio ta Malen bijoaz Almazenera*)

XALBADOR: (*Sukaldeko atetik otsegñez*) Izeba! Mañaxi! Illoba Xalbador nazu!

IÑUDE: (*barrendik*) Banoakizu...

XALBADOR: Ez ibilli zalapartan...

IÑUDE: (*Sukaldek atetik agertuaz*) Zu al ziñan, Potxolo? (*musu emanaz*).



XALBADOR: Onoko illoba ibilkari au ez da zutaz aaztutzen.
IÑUDE: Estimatzekoa da izeba zar ontaz gogoratzea. Mutil bapoa zaude
 Xalba! (*laztanduaz*)
XALBADOR: Zu ere bizkor beti.
IÑUDE: Argalean sendo! lan eta lan.
XALBADOR: Ez neregatik zure zeregiñak utzi, beñepein.
IÑUDE: Aurrai aia jaten eman diet ta lo artu didate. Orain pizka batean
 pakean utziko naute. Ez det beste egiteko aundirik.
XALBADOR: Beraz, bizi mañan pijo!
IÑUDE: Bearko, Ni bezelakoentzat ez dago atsedetik.
XALBADOR: Lanak ez dizu kalterik egin. Zure urtetan presko ta gordin
 zaude, sagarra bezela.
IÑUDE: Bai sagar zimela bezela: zimurtzen asia. Jainkoari eskerrak osasu-
 na badegu-ta ta zer egingo zaio. Aurrera segi! Etxean nola
 utzi dituzu? Ama-ta...
XALBADOR: Ama makal zamar bañan, tira! oia ustutzen du.
IÑUDE: Noiz ekarri bear diozu errain on bat?...
XALBADOR: (*irriz*) Ba al da errain onik?... Denbora txarrak daude orreta-
 rako.
IÑUDE: Oiek esaerak dituzu. Beti ezkongai bizi bear al dezu, pikaro
 orrek?
XALBADOR: Ori dezu ofiziorik onena. Gañera ia mutlizartu naiz...
IÑUDE: Au Xalbador ergel alena ez bestena! Gauzak garaiz egin bear dira
 ez zartuta gero... gure nagusiari gertatu zitzaion, eran andre
 gaztea, alargun utzirik...
MALEN: (*Maliziz, gaiztoz*) Ez dago ba itxura txarrekoa...
IÑUDE: A liskiskeria!... Zu ere gizon gose oietakoa al zaitugu?...
MALEN: (*ziria sartuaz*) Bai, salda pizka bat artuko nuke.
IÑUDE: Pozik emango dizut bada. Ollo-salda gañera!
XALBADOR: Ez zerate gaizki bizi etxe ontan. Ostatutzat artuko nuke.
IÑUDE: Ez dakizu guzia! Gure etxeoandreak badu eskubete lan. Ustez
 suerte egin zuela zirudin, nagusiarekin ezkondu zanean.
 Baiñan, gaizki irten zitzaion... Zorion gutxi ezagutu zuan
 senarra zuanarekin. Il zan eta ez noa gaizki esatera,
 baiñan... Malen gajoa... Zera!
XALBADOR: Zer? obeto dagoala alargun al derizkiozu?
IÑUDE: (*zalantzan*) Ez nuan esan nai baiñan... Alatsu! bere desgrazi ta ez
 bearrean, arnasa lasago artzen du.

XALBADOR: Bai, bada, senarra duanak, Jauna ere badu... Alargunak berriz
 gogoa libre...
IÑUDE: Bai beste lokarririk ez balu... ta diru asko utzi izan balio.
XALBADOR: Alako jaun aundiak zerbait utziko al zion.
IÑUDE: Bi aur eta zor asko...
XALBADOR: Aberats soñua dute bada Lizargaratetarrak!
IÑUDE: Urrutiko intxaurrak! Ez esan iñori, Xalbador, Jainkoagatik,
 baiñan bi urteko soldatak artzeko dauzkat oraindik.
XALBADOR: Aldez aurretik paga arazi, zer arraio! ta dirua jasotakoan
 beste leku batera joan.
IÑUDE: Nora joatea nai dezu nere zarrean?
XALBADOR: Nere ta zure jaiotetxean atepak zabalik dituzula badakizu. Ez
 zaizu an zer jana paltako, eta ez nun etzana; ez txoko bat
 su-ondoan. Eta nere sakelean, bear ala, zuretzat izango dira
 beti txanpon batzuek.
IÑUDE: (*biotzberaz laztanduaz*) Eskerrikasko Xalbador! baiñan ezin utzi
 dezaket gure etxeoandre Malen gajoa. Alaba ez izanagatik
 aurretan bularra eman nion ta buruz arin zamarra izan
 arren, biotz ona du, ona da nerekin eta maitasuna artu
 diot...
XALBADOR: Nun ditu bada, koñata ta senarraren familiakoak...?
IÑUDE: Koñata? (*erdeñuz*) Zaude isilik! Etxe ontan beñere sartuko ez
 balitz obe! Lagundu bearrean ez gaitu pakean uzten. Emen
 zan arestian. Aurren aitzekia dala, konseju ematea dala,
 dirurik ez, baiñan burruntzalia bai, sartzen du gure lapiko-
 an.
XALBADOR: Olloa, berak ekarriko zizuten...
XALBADOR: Bereala! Akats billa etorri oi da beti: aurrai onelako jantziak
 jarri bear zaiela; beste alakok gaxotzen dituala. Nik al dakit!
 Ezin begiz ikusi det! Bera aski ez dala beste erriko andre
 aundi-maundi batzuek ekartzen ditu maxiatzera.
XALBADOR: Alderdi ona du zure etxeoandreak. Ondo jaioa dago gajoa.
 Erruki det. Eskerrak zu zaituala aldamenean.
IÑUDE: Ezer gutxi dezaket; alare, alegiña egiten diot. Malentxo ezkongai-
 tan erromeri-zale, anka-arin ta burua ariñago, egun eder
 asko pasa bazituan algara gozoan, naigabe aldia etorri zaio
 orain.
XALBADOR: Ez da orrenbesteraño izango. Gaztea da ta errez aztuko du...
IÑUDE: Bai neri ere, aztu zait eskeñitako salda ematea. Goazen sukaldera!



XALBADOR: Ez uste artzeko gogo aundirik dedanik. Goizeko kape-
esneaz gañera gosari polita egiña naiz beste tratalari bate-
kin ta aseturik nago.

IÑUDE: Ondo gobernatzan zerate tratalariok!

XALBADOR: Batzutan! Larrialdi ta kezka pranko irentsi bear izaten degu
maiz asko.

IÑUDE: Bai etxe ontan ere! (*Almazenetik Malen ta Anastasio datozela ikusi-
rik*) Emen ditugu biak, etxeoandre ta nagusi... ordekoa.
Ez dirudi oso arpegi-alai datozenik.

(*Malen eta Anastasio sartzen dira*)

MALEN: Emen al zerate oraindik?...

IÑUDE: Beti izan oi da zer esana, Etxekoandre. (*sukalderuntz abituaz*)
Umetxoak lo daude gogo-gozo; noan, noan aiengana...

XALBADOR: Nere izebarekin itzbidean jarri ezker... badakizu.

MALEN: Bai, noski. Epelago egongo ziñaten sukaldean salda artuaz.

XALBADOR: Eskeñi dit, bai alajaña, baiñan lenago ere arturik nago ta ez
det gogo aundirik. Larru kontu ori erabaki arte kezketan
nago.

ANASTASIO: Datorren merkatu arte erabakia atzeratzea obe izango degu.

MALEN: Ortan dago Anastasio. Beste artzalleai ere luzapena eman diegu
eta ea gaur zortzirako garbitasuna egiten degun.

XALBADOR: Zuek ikusi. Ez dakigu orduan salgai egongo diran oraindik.
Arrituko nitzake.

ANASTASIO: Itxoin arazi zaiezu. Emen banituen luzeiritzirik zeudenak
baiñan etxeoandreak limurtu ditu. Bearko!

MALEN: Baita zera ere! Nere itzak ezer gutxi balio dizute.

ANASTASIO: Aste beteko korrituak irabazi ditugu beintzat.

XALBADOR: Gero guziak galtzeko.

ANASTASIO: Gero, gerokoak. Orain barrena lasaitu zaidan ezker mokau-
txo bat artuko nuke. Sabela gu-gur bai daukat. Barauaren
otsa!

MALEN: Salda beroa arraultz batekin emango dizute Iñudek. Ain zuzen
ollo zaarra ipurdiz gora sartua degu eltzean. Naiz nere
koñatak arpegi txarra jarri duan ikusitakoan... (*sartu gaitzen*).

XALBADOR: Ari zer ajola zaio!

ANASTASIO: Goiz guzian almazenean arrazoi txarrak entzun eta kopeta
illunak ikusten... Kemen guzia galdua det. Jota nago!

XALBADOR: Jan-edanak bizkortuko zaitu...

(*bijoaz*)

PETRA ETA EDUBIGIS

(*kaleko atetik sarturik*)

PETRA: Sartzen ikusi gaitu, sukaldeko leiotik, eta ez noa deitzera. Etor-
tzeoak general bai bait daki.

EDUBIJIS: Garai ontan etortzeak erreparua ematen dit. Baiñan presako
gauza bait da ta, txalma ori egotzi didate ta lenbaitlen bete-
tzea obe. Orrela kontzientzia lasai geldituko zait.

PETRA: Nik ere orretxengatik laguntzen zaitut: kontzientziaren aginduz.
Erreljioaren alde zerbait egiteko ez da beñere goizegi.
Obispo jaunak agintzen duanean Kristok agintzen du.

EDUBIJIS: Ori da! Eliza berria egiteko bear aundia dago Usabal auzoan ez
bait dira bizi-lagunetatik erdiak mezetara joaten. Ta zure
koñatak ez badu soroa erregalatu nai, leku artan Jainkoaren
etxea egiteko, alik eta erreztasun geienak eman ditzala
beintzat. Diruz ondo ez dabillega entzun det, baiñan Goi-
koak lagunduko dio; ez du ordañik gabe utziko.

PETRA: Ez zuan ala ikusi bear bere burua. Tiburtzio, nere anai zanak
ondasunez oso polliki utzi zuan, baiñan... (*isillago*) oso dezu
«pirri-parra» nere koñata; ta dirua eskuartetik errez dijoa-
kio. Etxetik ezer ekarri ez duten oiek izan oi dira okerre-
nak: aundi-nai gastatzailleak...

EDUBIJIS: Negozioak ere gaizki irtengo zitzaizkion eta... Zer nai dezu,
orretarako jaio egin bear.

PETRA: Ez, ez, gorde egin bear dirua. Txanponai ez dio batere begiratzan.
Zenbait izan, ainbat txautu. Ondorena jakiña da... (*Asarre-
tuaz*) Gaur bertan, aste gorrian, ollo bat illa zutela ikusi det,
sukaldean. Zer derizkiozu? Ollo salda, alegia, aste egunez.

EDUBIJIS: Ollo zarren bat izango zuten eta. Ez da bijili eguna aragia gale-
razi azteko.

PETRA: Ez noski, Edubijis. Ezta pekatu; orrela ordea, gu ere errekan
giñan. Ba al dakizu?... (*isilpean*) Neskame izan zan eta ez
jakin «señora» izaten... Anai Tiburtziori esan nion bein
baño geiagotan... jende xea...



EDUBIJS: Ori ez Petra. Ez esan orrelakorik. Jainkoaren seme-alabak gaituztu guziok.

PETRA: Bai ala da, askotan ez dirudin arren... (*Atsperenez*) Ail isildu nadin bai. (*isilune bat*) Bera datorrela uste det. Zuk itzegin Edubijis, eta esateko guziak esan. Nik ez det txintarik aterako.

EDUBIJS: (*Aitaren egiñez*) Jainkoak lagun gaitzala (*sukaldetik norbait datorrela oartuaz*) Emen degu, bai. Oso «guapa» dala badakit... (*albora*).

PETRA: (*marmaizoan*) «Ederrakin» jango du.

(*Madalen agerturik*)

MADALEN: Egun on! Barkatu itxoin arazi badizuet. (*Agurtuaz*) Zer modu? (*Edubijisi eskua emanaz*)

EDUBIJS: Ondo! eskarrikasko, zu ere bai?

MALEN: Or barruan kontuak egiten ari giñan. Etortzen ikusi zaituet.

EDUBIJS: Esan diot Petrari nik barkazioa eskatu bear nizukela, ain desgaraiz etorriagatik.

MALEN: Bai zera, gure etxea beti daukazu zabalik... Emen beti dabil jendea sartu-atera...

PETRA: Bai, Malen, baiñan andre Edubijis nere lagun eta On Justo, eza gutzen dezun letradu jaunaren emazteak, garrantzi aundiko arazo batez itzegin nai dizu.

EDUBIJS: Atsegin osoz gañera, zuk arrera ona egingo diguzula bai bait dakit.

MALEN: Eseri zaitetzte, eseri. (*eserlekuak eskeñiaz*) Zuen etxean zaudete (*esertzen dira*).

EDUBIJS: Eskerrikasko. Ondo geunden baiñan, tira! eserita gauzak lasago esaten dira.

PETRA: Andre Edubijis, zutik mintzatzen ere oituta dago; «Emakume-en Acción Católica»n, Eliza-barrutiko Presidenta dezu, ta Obispo jaunaren izenean dator zuregana.

MALEN: Ni naizenik, ere, ba al dakite obispotegian?...

EDUBIJS: Nola ez! Ta gañera auzoan dagon basarria zurea dezula; eta an bide inguruan dauden lurrak zureak dituzula.

PETRA: Bai, zure senarrak utziak... Tiburtzio nere anaia izan zañak...

MALEN: Basarria ere nerea izana edo... esan bearako. Ez dakit orain norena ote dan. Hipotekaren garbitasuna egin arte.

PETRA: Hipoteka! itzaren itsusia! Gure etxean entzun bear ez litzaken itza.

MALEN: Tiburtzio, zure anaia egin zuan bada papera, notarioanean.

EDUBIJS: Ez kezkarik izan. Notario jauna adiskide degu ta nola edo ala garbitasuna egingo digu.

MALEN: Zuk ikusi zer egin diteken. Nik gutxi dezaket.

EDUBIJS: Baiezkoa ematea aski dezu. Auzo ortan eliz agintariok eliza berri bat egiteko asmotan dira. Ta zure baserriko soro bat aukeratu dute.

MALEN: Nere aldetik ez da eragozpenik. Maztarrari ordea, soro bat kentzeak ez dio pozik emango. Galdegin bearako zaio.

EDUBIJS: Jainkoaren etxe berri bat egiteko izanda ez al da ukatuko.

PETRA: Ukatuta ere zer?; lurrak legez nagusiarenak dira.

MALEN: Egitazko nagusi nor dan jakin bear aurrenik.

EDUBIJS: Utzi ori gure gain, Malen. Letraduek garbitasuna egingo dute. Ez izan ortan batere kezkarik. Eta gero arkitetoek planoak jasoko dituzte zuk baimena ematen badiguzu.

MALEN: Ni gauza orietan ez jakiña nazu, baiñan soro orrek zenbat balio duan erabaki bearako da lenengo...

EDUBIJS: Beste gauzak egin ezkeror diruarena da gutxiena.

MALEN: Orra bada, alargun gajo oni, artzalle guziak, dirua da lenengo eskatzen diotena.

PETRA: Ori fedegabeko jendeen artean gerta oi da. Gure artean olakorik!

EDUBIJS: Zaude lasai, Malen. Bidezkoa dana emango zaizu eta gañera induljentziak irabaziko dituzu zure animarentzako.

MALEN: Danaren bearrean izango naiz.

EDUBIJS: Bada, Donostiko Eliz barrutiko asmoa ontzat artu dezun ezkeror eskerrak ematen dizkitzut Gotzai jaunaren izenean eta onespena ere bidaliko dizu.

MALEN: Bai beinkazio on bat ez zait gaizki etorriko.

EDUBIJS: Beste berriren bat izan dezadanean azaltzera etorriko natzaizu. Gaur ez det bixita au geiago luzatu nai. (*jekiaz*)

MALEN: Etorri, gogoko zaizunean. Bidea badakizu.

PETRA: Orain elkarren ezaguera egin dezute ta ea maiz elkar ikusten dezuten.

EDUBIJS: Ori da, ori! Ea lenbaitlen nere etxera etortzen zeran.

MALEN: Ez dizut agintzen. Gure almazen eta dendan lanpetua bait nago. Nere bi alabatxoak asko lotzen naute.

EDUBIJS: Zoragarriak dira! Bi aingerutxo! Ezagutzen ditut.



PETRA: (*abitzen dirala*) Malen, leen ere esan izan dizut, Elizako Andreen billeran, sartu bear zenukela ta illean bein agertu.

MALEN: Badakizu, prailetara joaten naizela elizkizunetara: irugarrendarra naiz.

EDUBIJS: Oso ederki!

PETRA: Ez da naikoa. Gaiztoak lan asko egiten dute, ta onak ez degu geldi bear aiek zapaldu arte.

MALEN: Ori erregutzen diot Jainkoari: erakus dezaidala nortzuek diran on eta nortzuek gaizto.

PETRA: Gauza erreza. Gaiztoak elizaren etsaiak, komunista, gorri ta ezkertarrak.

EDUBIJS: Ez gaitezen politikan sartu. Gure indarra otoieta da.

MALEN: Aren bearrean gaituzu amar mandamentuak betetzeko. Batzuen batzuek, beintzat. (*Irurok jeikiatz ateruntz dijoazela*).

EDUBIJS: Uzten zaitugu, bada, etxekoandre (*Musu emanetz*) Urren arte. Eta musu asko alabotxoai.

PETRA: Lenago ikusi ditut.

EDUBIJS: Urrena etortzean goxo batzuek ekarriko dizkiet.

MALEN: Nai deutenean etorri, pozik artuko dituzte.

PETRA: Ez dira gaizki oitu bear. Gozo-zalegi egiten bait dira.

EDUBIJS: Kutunok ezti pizka bat bear dute: gero ere garratzasuna etorriko zaie bai!

MALEN: Nik ala uste! Kaleko ateraño lagunduko zaituet.

(*bijoaz irurak*)

(*Unetxo batean antzeztokia inor gabe dagola, almagazeko atetik*

Bitor eta D. Justo sar bitez, solasean elkarrekin)

BITOR: Gogor egiten zait, baiñan gure alarguntxo estutu bear degu. Ez da beste biderik. Luza ta luza ez du zorrik ordaintzen eta diru askotxo da gure Bankoarentzat, onela galtzen uzteko.

D. JUSTO: Nere iritzian, bada, erreztasunak emanda, gogorrean baño obeto jasoko zenuteke dirua.

BITOR: Bai zera!, erreztasunak aspaldi jan zituan. Eman zaizkion luzapen eta epe guziak atzean utziak ditu. Eta okerrena, zor berriak egiten ari dala. Hipotekaren korrituak ordaintzeko dauzka oraindik. Ori azkena da! D. Justo.

JUSTO: Bai, hipoteka gauza gaitza da. Lokarri ortatik ez dago iges egiterik. Ez badu ori antolatzen kalean gelditzen da.

BITOR: Gure Bankoak agindu ori emana dit eta azken aldiz esango diot. Ez da txorakeria! Ta onez onean erantzungo ez balu... txarrean...!

JUSTO: Itz garratzak emakumezko bati esateko, emakumezko eder eta alargun bati, gañera.

BITOR: Neri erantsi didate txalma ori: eramatea.

JUSTO: Toki txarrera! Auzi-maisu ta letraduak sartu oi geranean, beleak sarraskira, norbait galdua da...

BITOR: Zerbait sumatuko zuan onezkero. Ni etortzekoa nintzala badaki. Eta tamalez, berri txar bat ezik bi ere eman bear dizkiot. Azkena bidali zizkiguten ardi larruak pipiak jota zeudela ta itzuli egin dizkigutela. Anastasio kaiku orrek ez dakit nun zituan begiak! Aien diruaren zai badaude «txuri egingo dute».

JUSTO: Gizon ona da Anastasio ori baiñan ez etxe ontan bear dana. Txotxolotzen asia da. Ori da, gauzak oker ateratzea ta zail da alargunak bururik altxatzea. Beste norbaiten laguntza bear luke.

BITOR: Emen degula uste det.

JUSTO: Al dan legunena gauzak esango dizkiogu. Erruki det gajoa.

BITOR: Adi zazu! Ez dakit olakotan ez dan ohea bat batean guzia latz esatea. Ea ikaratuta agindutakoa egiten du. Zirt edo zart!

(*Malen sukaldeko atetik agertzen da. Aurreko agerraldian baño zerbait apañago, orrazkera, txukun eta more kolore artillezko txamar bat bizkar gañean daramakila*).

(*Gizonezko biak burua makurtu ta eskua estutzen diote*).

MALEN: Egun on jaunak! zer modu?

BITOR: Ondo, eskarikasko, zu ere bai?

JUSTO: Zu agurtzea beti zait pozgarri, andre Malen.

MALEN: Malen esatea ere naiko dezu, D. Justo. Emen nabil ezeren batarik gabe jendea artzeko. Merkatu eguna, egunik txarrena!

JUSTO: Beste egunez ere etorri gintezkean, jakin izan bagenu...

MALEN: Alatsu!

BITOR: Neri ordea, ain zuzen merkatu egunez etortzea dagokit.

MALEN: Ala dan ezkerero, eseri zaitetze, zuen bixita patxaran egin dezazuten. (*eseri bitez irurok*).

JUSTO: Ez gatoz eginkizun atsegiñera. Badakizu, Malen...



MALEN: Bai, antzematen diot. Etsita nago... Dirua eskatzera, noski.
JUSTO: Zorren kontua oroitaraztera bai beinik bein.
MALEN: Errez botatzen diozute arpegira alargun bati, errua nereaz balitz bezela. Naiko lotsa pasatzen ari naiz.
BITOR: Guk ez degu ezer zure aurka, baiñan zorrak zorrak dira-ta...
MALEN: Ni itotzera zatozte.
JUSTO: Ez zaite larritu. Obe bearrez oar arazi nai dizugu, firma jarria dezula paperean, eta epea bukatua dan ezkeroo...
MALEN: Ainbeste firma egin arazi dizkidate aspaldidanik.
BITOR: Biar, ordeaz Bankotik Letrakin etorriko zaizkitzu. Larogei milla duroko agiria. Eta ordaintzen ez badituzu...
MALEN: Nundik atera bear det dirutza ori! Bilboko zure etxeak ez badizkit aurreratzen...
BITOR: Ezin ditekena da. Lenago ere milla duro askotxo aurreratuak dizkitzu. Zoritxarrez azkenik bidali zenituen larruak, oso txarrek atera dira: zitzak illea jana zuten eta baztarrean utziak daude.
MALEN: Aiek ez badute bada ezer balio nik ez daukat beste ezer ematerik, nere larrua ez bada. (*malkoa dariola*)
JUSTO: (*Errukiturik*) Begira, Malen. Bankokoak ez dabilta txantxetan. Juzgadura eramango zaitue. Eta auzitegiko sarean erori aurretik, nola edo ala korapilloa askatu bear degu.
MALEN: Ez balitz korapilloa azkatzea besterik...
BITOR: Etxe ta ondasunak gelditzen zaizkitzu oraindik eta Hipotekan jarri ditezke.
MALEN: Jarriak eta baituak dauzkat geienak.
JUSTO: Ori da garbi ikusi bearra dagona. Ene iritziz bigarren hipoteka egitea ez da eziñezkoa. Bankoak agian ez luke ezetzik esango.
BITOR: Nere aldetik ez dago eragozpenik, baiñan, aldeaz aurretik Bilboko nere etxeari konsulta egin bearko diot.
MALEN: Neretzat ez du iñork izango kupirik! (*zinkurin luze batez*).
JUSTO: (*Besoan ikuturik*) Ez Malen, ez goibeldu. Guziok, ataka ontatik atera zaitezen alegiñak egingo ditugu. Lasa zaite.
BITOR: «Ulibarri» etxeak ez du iñor naita ito!, ez erortzen laga.
MALEN: (*On Justori*) Nere paperak zuk dituzu ta...
JUSTO: Bai, eta gaur bertan aztertuko ditut bigarren hipoteka nola burutu ditekén.
MALEN: Zertarako? gero ezin baditut jaso.
BITOR: Luzapenak ere zerbait balio du.

JUSTO: Iru illabeteko luzapena Bankoari eskatuko diogu ta bitartean zerbait sortuko da.
BITOR: Bai, eta guzia illuna izan ez dedin berri on bat eman nai dizut; itxaropen argi-izpi bat: gai batzuek, artille, larru ta bestelakoak prezioz igotzen asiak dirala.
MALEN: Ni erosle naizenean, bai, beti gora joan oi dira; saltzerakoan, berriz bera jotzen dute.
BITOR: Oriek «salmenta»ren gora-berak dituzu. Orretarako legea da: merke daudenean erosi, eta garestitzean saldu. Burrundara, nundik datorren usma bear. Ala gertatzen dira «kinka ta krisiak».
JUSTO: Ez zazula gure andretxoa asperarazi zure «ekonomia» jakituriaren itz burrundaraz.
MALEN: Itz utsak ez naute beldurtzen; «azio» txarrek bai.
BITOR: (*Arro*) Gure Banko «Ulibarri» etxeko azioak oso onak dituzu ta gallurrean daude.
JUSTO: Aski degu itzez... (*jekiaz*) Ez zaitugu geiago nekarazi nai. Beste «eskritura»ren bat zerekin baldin badezu ikusi nai nuke. (*abituaz*).
MALEN: Kutxan ditudanak erakutsiko dizkiot.
JUSTO: Zurekin joango gera.
MALEN: Nai dezutena... Aurrea artzen dizuet, barkatu (*Almazenera sartuaz*).
BITOR: Goazen bada...

(*Justo ta Bitor bijoaz ondoren*)

ANASTASIO: (*Sukaldeko atean zeletan egon ondoren agertuaz*) (*Barman dao Xalbadori*) Aizu Xalba! Almazenera joanak dituzu! Etorri zaitezke.
XALBADOR: Berriz etortzen badira ere, berdin zait, ni ez naute ikaritzen.
ANASTASIO: Eskribau, bankuzale ta antzekoak etxetik urrutit, urrutit!...
XALBADOR: Salda zurrupatuko zizuten beldur al zian?... Bi katillu bete artu dituzu; eta beste baso pare bat ardo...
ANASTASIO: Izan ere, zure izeba ori zu etorritakoan esku zabal biurtzen da. Etxea emango luke... Txarrena dana... zera gure etxea ankaz gora dijoala ta eskribau, bankuzale ta antzekoen etorrera! Malo! susmo txarra artzen diot.



- XALBADOR:** Ona ere artu bear zaio. Tratalariaren egitekoa dezu ori. Ez ezetzik esan. Neri uzten badidazute sal-erosten, itz ematen dizuet etxea jasoko nukela.
- ANASTASIO:** (*apal*) Aitortuko dizut, bai Xalbador, ni ez naizela traturako jaio. Lana egiteko, bai. Nik ondutako ardi-larru ta gañera-koai ez zitzaizen beñere illerik eroriko.
- XALBADOR:** Orain ez du balio gauza onegiak egitea, merke zurrean baik. Itxura pizka bat eman eta ekin!
- ANASTASIO:** Nik ondutako larruak aña iraungo zutenik ez zan emen inguru guzian. Ori bai, kostalakosta lan egiñez...
- XALBADOR:** Orain kostalakosta dirua irabazi bearra dago. Bestela nundik ordaindu zergak eta batik bat etxeko zorrak...
- ANASTASIO:** Arrazoi dezu! Ori gerta zaigu etxe ontan. Eta gure etxeko-andrea artzaille-jauntxoak estutzen dutela ikusteak sutzen nau! Bilbotar aberaskume ori ez det batere gogoko. Maizegi dator etxe ontara gauza onerako.
- XALBADOR:** D. Justo letradua, gizon prestu ta jatorra da ta emen dan bitartean, ez dago beldurrik.
- ANASTASIO:** Bearrik, bestela, etxekoandrea bankeru anker orren eskutan kupigarri litzake. Usoa miruaren atzaparretan aña...
- XALBADOR:** Pizti ori aragi billa ezik diru billa dator eta uxatu egin bear!
- ANASTASIO:** Ez da erreza, beti gañean degu-ta. Lasago bizi zan bai, Malen, ezkondu aurretik, neskame zanean. Gazteegi gelditu zan alargun eta beste senar bat bear luke etxea begiratzeko.
- XALBADOR:** Lengoa baño bizkor eta burutusagoa ez izatekotan obe du dagon eran egon. Ua, kaiku gizatxar bat zan gizarajoa!... Ez urtez eta ez izatez Malenen diñakoa.
- ANASTASIO:** (*Errezeloz*) Isilik itzegin zagun. Ba ezpada ere... zera Xalbador Zu zera... gero esango dizut, etxekoandrea dator-eta.

(Begitako malkoak txukaturik naigabea ezin gorde duala sartzen da Malen almazeneko atetik).

- MALEN:** Ez zaizkit bereala jua zalduntxo oiek...
- ANASTASIO:** Ori esaten ari giñan, Xalba ta biok: alegia goiz guzian jendea dabillela etxe ontan ez digutela ezer egiten uzten.
- XALBADOR:** Eta larru ta artille tratu on egin, ala ez, erabaki gabe dauka-gu.

- MALEN:** Nerez nola erabaki! Ez bait det ez diru ez adorerik ezer erosteko.
- XALBADOR:** Adorerik ez da galdu bear, eta ez kezkarik izan diruaz. Neronek erosteko bear dana aurreratuko nuke.
- MALEN:** Ori besterik da, Xalba, eta eskerrak ematen dizkituz eta baime-na, jakiña, tratua gure izenean egin dezazun. Anastasiok ere bear bada, lagunduko dizu...
- XALBADOR:** Onek naikoa du kamionarekin saku-pardelen billa etortzea.
- ANASTASIO:** Lanerako gertu nago. Etxean geldi egoteaz bat aspertzen da.
- MALEN:** Auxen da lanbidea! Dirurik gabe negozio gutxi; eta geldirik egon da irabazarik ez!
- XALBADOR:** Doñutik dator dantza... Eta ni oraingoan doñu jotzaille. Bilbotar ori merkatuan larruok erosi naiean zebillela ikusi det eta aurea aurtuko diot. Tratua gurea izango da.
- MALEN:** Seguru al zaude ez dezula pauso txarrrik emango?
- XALBADOR:** Bai. Tratalari naiz eta dantza ortan lenengo asten danak eramaten du neskatarik politena. Ez al zera gogorazten?
- MALEN:** Ainbeste urte dira ez dedala orrelako dantzarik egiten!
- ANASTASIO:** Emen doñu-dantza utzita lenbaitlen larruak jasotzera joan bear degu. Indarrean nago.

(Iñude sukaldeko atetik sartuaz)

- IÑUDE:** (*Axanpaz*) Baiñan etxekoandre, ba al zatoz amaiketako artzera?... Salda atera dizut eta ea oztu zaizu.
- MALEN:** Ez det ezer artzeko gogo aundirik. Gero egingo det nere bazkari-legea.
- ANASTASIO:** Guk egin degu bada gure «arrantxoa» eta gero bazkaltzeko ere ez zaigu gogorik paltako.
- XALBADOR:** Zuri ez beinik bein. A zei nolako tripa zaia! Badezu, or, ezin betezko larrua...
- IÑUDE:** Ori esan! Salda ta ollo laurdena garbitu dizkit; eta gañera «irugiar» pusketa bat. Mokau goxo alena!
- ANASTASIO:** Zuk eman dizkidazunak! Etxekoandreak ez zituan jan nai eta...
- MALEN:** Ez, ez nago bazkaritako. «Sopa» ederra artua det goiz guzian. Barren dana naastu didate.
- XALBADOR:** Esaera zaarra da: «Alako eztaietan, alako zopa»...



IÑUDE: Bai noski, eta naigabeak, janda sendatu ta aaztutzen dira. Beraz, (*Maleni*) ar zazu salda ta jan ollo ixtar bat, oso guria atera zaigu. Ondoren kapea egingo dizut eta baita kamamilla ere. Anixete kopatxo batez bustiaz on egingo dizu. Tira! Goazen «Señorita».

MALEN: (*Etzita*) Salda pizka batekin naikoa det. Gero lo kuluxka bat egiñez buruko miña joango zait.

IÑUDE: Loa ez da txarrena, jan ondoren. Aurrak ere alaxe daude koita-duok aingerutxuen antzera.

MALEN: (*abituaz*) Naiko erropa jarri diezun begira bear diet.

IÑUDE: Musu-gorri-gorri egiñik daude biok! izarditan! Zoragarri!

MALEN: Noan ikustera! (*Xalbadori*) Gero arte. (*Bjoaz Iñude ta biak*).

XALBADOR: Gero arte, bai. Guk ez daukagu lo artzerik, Anastasio! bizi-mañari jarrai bear diogu. Mugi beraz ez dakiguten eskutik irabazia kendu! Egonean ez dago ezer!

ANASTASIO: «Siesta» ez da gauza txarra izaten baiñan...

XALBADOR: Zoaz! gizona kamionaren billa. Aguro! eta ea ordu bete barru larru ta artille saku guziak etxerutzen ditugun.

ANASTASIO: Bestek ez badigute aurrea artzen!

XALBADOR: Ez! Tratalari onek, azokan nor dan nagusi erakutsiko die.

ANASTASIO: Burrukalari zaitugu!

XALBADOR: Bai, nere poza ortan dago tratalaritzan, ibilli, joan, etorri, saldu-erosi. (*Goazen bada!*) Aurrera!

ANASTASIO: (*Nagi gogo, txarrez jarraiturik*) Ezin esan EZTI!

II. EKITALDIA

(*Lenengo Ekitaldiko antzetzoki bera ta berdin antolatua. Oiala jasotakoan D. Justo letradua ta Iñude jardunean ari dira*).

IÑUDE: (*Justori*) Goiz dabil!, eskribau jauna. Eseri bedi!

D. JUSTO: Eskarrrikasko! Zutik erosoago nago. Etxekoandrea emen izango da noski?

IÑUDE: Bai, jauna, bai! Sukaldean dago. Etortzeko esango diot. Aurrak txukuntzen ari zan.

D. JUSTO: Ama batentzat ori dezu eginkizunik atsegiñena; baiñan etxekoandreak beste egin bear larriagoak ditu gaur... eta alde zurretik gaztigatzera natorkio. Kalterik izan ez dezan.

IÑUDE: Orain ere ba al degu okerren bat?... Banoakio esatera itxoin arazi ez dezaion. Aurrak nik zainduko dizkiot... (*sukalderuntz bijoa*)

D. JUSTO: Ez daki gajoak zer datorkion gañera! (*Eskuak burura eramanez*) «Ejekutiboa»! Kiebra atzerazteko alegiñatan ari naiz, baiñan alperrik ote dan nago. Juzgaduko auzi-maisuak ez bait dute errairik... arrizkoak ez ezik. Legea lege da. «Dura lex sed lex». (*Batetik bestera urduri dabillen artean Malen ager bedi*).

MALEN: Egun on D. Justo! Goizeko otoitza errezatzen ari al zera?

D. JUSTO: Bai! otoitz ederrak egunari asiera emateko. Egun on zuri ere Malen. Nere buruaz jardunean ari nintzan, barrengo kezka ezin gorderik.

MALEN: Eseri zait beintzat. Patxaran jarrita lasago esango didazu esan bear guzia.

D. JUSTO: Lasa, ez! (*Eseriaz*). Ez zutik eta ez eserita. Oiean ere ezin lo egin izan det eta goiz jekiaz etorri natzaizu... antza emango diozu... ea zure arazorako irten biderik arkitzen degun.

MALEN: Nabaitzen det bai. (*trankil*) Ez beintzat larritu. Juzgadutik estutzen banaute ni izango naiz katigu. Etxe ontatik bidali ta kalean uzten gaituztela?... Arnasa lasago artuko det kaiol ontan baño. Lenago ere lanegiten oitua nago eta Iñudek aurrak zaintzen dizkidala, bizimodua aterako det; ez nuke nai neregatik iñork buru-austerik izan zezan. Eta gutxiena



zuk, D. Justo. Geiegi leiatzen ari zera nere alde. Bein eta berriz eskarrikasko...

D. JUSTO: Ez da ezeri, Malen. Olako gertaerak atsekabetzen naute. Zirradaz eragiten didate barrua. Nere bezeruen naigabeak, ta zureak arego, min ematen didate. Bear bada ez det letradutzarako «koskorrik». Obe da biotz-gogor eta gibel-aundi zenbait bezela izatea. Ta gaitz erdi zu andre bortitza zaitugula.

MALEN: Ez ibilli nerekin egia estaltzen. Ori ez! Goiz ala berandu jakingo bait det... Zer da berri?

D. JUSTO: Ba... Malen,... Berri txarrak! Eguardirako ez badizkiozu Juzgaduari larogei milla duro eskuratzen, Juezak kiebra agria izenpetuko duala. Ta jakiña, ondasun guziak baituko dizkitzutela.

MALEN: (*Trixturaz*) Ainbeste malko isuria nazu aspaldian, ia ez naiz negar egiteko gauza. Iturria agortu zait nunbait... (*Bat batean esku-zapia begitara eramanez malkoak estali nairik*).

D. JUSTO: (*Ez ikusia egñez*) Beste hipotekaren bat burutu ote ziteken ibillia nazu... Baiñan alperrik! Notario jaunak ez du irugarren Hipotekarik egin nai. Geiegi bait litzake. Ontaz kanpo ez dakit nundik atera larogei milla duro. Askotxo dira, iñori eskatzeko, ta zuk ez badezu bestela sortzeko usterik, koñatari eskatuaz edo...

MALEN: (*erdeñuz*) Toki onean! Naiago det «Miserikordia» etxera joan...

D. JUSTO: Malen! ez da artaraño kinka gaiztoa! Jakiña! beste nunbait jasotzekorik baldin badezu obe. Agian...

MALEN: Bilboko Ulibarri etxeak kontu aundi bat zuritu bear digula bada-kizu... Bitor etorri zait, aitzeki maitzeki ezezkoa ematera! Uzkur egin eta or konpon esanez, guzia galdutzat emanik.

D. JUSTO: Ori ere egin dizute banku-zale diruz okitu oiek! Gezurra dirudi. Ez nuen uste orrela jokatu zutenik.

MALEN: Alargun bakar bati zer nai txarkeri egiten zaio. Ez bait det etxean babestuko naun gizonik... Anastasiok laguntza gutxi eman nezake; almazenean ez degu ea ezer saltzeko... ta ez det zer eskeñirik nere korputza ez bada... (*malkoak esku-zapiatzaturik*).

D. JUSTO: Tira!, tira! ez zazula olakorik aitatu, Jainkoagatik andre zintzo ta prestua zeranez.

MALEN: Bear bada emakume galdu bat banintz beste ollar batek egingo lidake kukurruku. Askotan, gogoak ematen dit... lasakeriko bidetik joatea...

D. JUSTO: Utzi itzazu pentsamentu txar oriek! Malen, kristau zera, aurrak dituzu eta biarko egunez amatzaz lotsakuko lirakenak. Jainkoak eskutik zaitzala.

MALEN: Laister kale gorrian utziko naute ta ez dakit zer egin nere aur gaitxoaz! Iñuderekin basarrira eramán!

D. JUSTO: Ez, aurrak amaren ondoan daude ondoenik. Gaztea zera ta...

MALEN: Gaztea! zertarako? Naiago nuke zartxeagoa bai baiñan aberats banintz...

D. JUSTO: Utzi itzazu irudimen... baezpakoa. Zerbait egiazko artalea bear degu eskuan. Orduak aurrera dijoaz eta auzitegira noa, juezarengana. (*Jekita abituaz*).

MALEN: Ez det nik joan bearrik izango...

D. JUSTO: Ez! Zu geldo zaitez emen, norbait ondasunak baitzera etortzen bazaizu ere. (*Dijoala*) Ez estutu! Biotza, gora!

MALEN: Errezago da esatea (*Almazeneko atetik joanez*) Au ere ikusi bear nuen. «Kiebra!...».

(*Unetxo batean antzeztokia iñor gabe. Bereala sukalde ate atzean entzuten ta zelatan zeuden Iñude ta Anastasio ager bitez*).

ANASTASIO: Entzun al dezu?... «Kiebra»...

IÑUDE: Eta zer da ori?

ANASTASIO: Zer izango da!: «Purrut» egitea. Usai txarreko gauza.

IÑUDE: «Purrut» ala «pirrit» alatsu. Orregatik bizi izan gera oraindaño.

ANASTASIO: Bai, baiñan, auzitegikoak etxera badatozkigu ditugun puska, diru ta gauza guziak baituko dizkigute. Zorrak ezin ordaindu diranean gertatzen ori: Kiebra jotzea!

IÑUDE: Ori aintziñan, antigalian izango zan. Orain makiña bat ezagutzen ditut zorrez beterik daudenak baiñan ederki asko bizi diranak. Kiebra aberatsen gauza da.

ANASTASIO: Begira, Mañaxi! Ni ez nago arazo ortan oso jantzia, baiña ikusiko dezu ikusi, aguazilla-ta badatoz eta etxeko puska eramaten asten bazaizkitzu.

IÑUDE: Ez alajaña! Sukaldean ditudanak ez dizkidate berealakoan kenduko. Nere gazta, urdaizpi, arraultz, maiontzi, ta zillareria ondotxo gordeko ditut.



ANASTASIO: Ori da gutxiena. Eltze, lapiko ta zartagi batzuek gora-bera... Okerrena etetik bidaltzen bagaituzte izango da. Zuk eta nik, nora joan bear degu degun adiñean?...

IÑUDE: Gauzak ortaraño iritxi zitezkenik ez zait egundo bururatu.

ANASTASIO: Artzalleai zorrak ordaindu ezkeru, ez noski! Bestela ordea...

IÑUDE: Artzailleak?... Neroni ere «soldata» artzeko nago aspaldidanik. Orretara bagoaz...

ANASTASIO: Baita ni ere! Zu baño lenago sartu nintzan etxe ontan. Etxekoandrea etorri aurretik, Beraz...

IÑUDE: Nik bada artzeko guzia barkatzen diot etxeoandrear! Zer uste dezu? Olakorik!

ANASTASIO: Gureak ezer gutxi dituzu, Mañaxi! Etxe onek ez balu zulo aundiagorik!... Millaka duro askorena!

IÑUDE: Zuk ollo ta txerriki guzia zurrupatu dezu beintzat. «Pirri-parra» bizi gera, ta jakiña! «Pirrit» egin bear

ANASTASIO: Itz itxusia da ori. «Purrut» esaten da: «Kiebra». Alderdi ona daukagu! (*Besoak tolestuaz ta burua gaitik bera mugiturik*).

IÑUDE: Laguntzaren bat izango al degu! (*leiotik kaleruntz begira*) Orratz! bixitariak ditugu! «Señorita» Petra ta Andre Edubijis... Atea irikitzaera noakie! (*Kaleruntz irtenaz*).

ANASTASIO: Ni bada, baezpada... almazenera. Zernai gerta ere erne egongo naiz. Erdi utsik dago, alare ditugun puskek eskutatzea ez litzake kaltegarri... «Portzi akaso» Begi! (*Bijoa*)

(Petra ta Edubijis agertu bitez. Mantillaz apaindurik datoz, Errosario ta eliz-liburuak eskuan dituztela).

EDUBIJIS: Ez ote da goizegi etxe batera etortzeko?... Erreparoa ematen dit, Malen, bear bada, lanean ariko da-ta.

PETRA: Goizeko amarrak! Etxea txukuntzeko beta izango al zuan. Jendea artzeko garaia dala uste det.

EDUBIJIS: Etxe guziak ez bait dira berdiñak! Gurean aspaldi garbiketa egiña degu. Aurrik ez bait degu. Justo 8 1/2 mezetara joan oi da ta ni 9takoa. Eta gero bakoitza geren eginkizunetara.

PETRA: Ori da «kuxidadea» ta ez... (*ingurura begiratuaz*) etxe ontakoa. Berriz ere soñu txar ta susmurrak ibilliko ez dira bada? Zuzenean galdegingo diot Maleni...

EDUBIJIS: Nik ere itzegin genduen «soro» arazoa zertan dagon jakin nai nuke. Obisopotegian zai bait daude eliza berria eragiten

asteko. Bear bearrezko gauza da. Ainbeste jende auzo artan erreljio bage bizi dana! Ainbeste anima errukarri!

PETRA: Zai egon bearko dutela derizkiot. Alperrik gaude nere koñatari begira. Gaizki dabil diruz, eta...

EDUBIJIS: Orregatik bada soro ta gañerako baserri-lurrak saltzea kome-ni zaio.

PETRA: Bereak balitu... bai! Familiako guziak lotsa araziko gaitu. Tiburtziok utzi zizkionak utzita! Nere buruari galdegiten diot: Baiñan emakume orrek, alako dirutza nun eta nola txautu du?

EDUBIJIS: Esku-zabala izaki, nunbait. Biotz onekoa!

PETRA: Etxe-kalte, ondatzaille, aundinai!... (*damuturik*) Nere onetik ateratzen nau. Naiago det aoa itxi:...

EDUBIJIS: Orrela ez gaituzu masiatzale izango. Ez da zillegi, ez gaizki esaka aritzea. Karidadeak ez du ori agintzen.

PETRA: Arrazoi dezu. Isildu nadin! Bai. Isilduko naiz kosta arren!

EDUBIJIS: Ori da kristau zintzoa izatea. San Pablok Korintian edo... eskatu zunez.

PETRA: Epistola errez eman zuan ark... Korintiarrok jarriko nituke gure lekuan... «Dominus vobiscum!».

(Malen bat batean sarturik)

MALEN: Ez nekien emen ziñatenik! eta agidanean errezatzen...

PETRA: Iñudek sartzen ikusi gaitu ta adierazi zizulakoan geunden.

MALEN: Ez bada. Eta ez det beta aundirik zuekin jarduteko.

EDUBIJIS: Sartu-atera bat egitera besterik ez gaituzu etorri. Mezetan giñan eta etxera bañon leen. Petrari esan diot: Goazen Malenengana! Sorokiko arazoa zertan dan jakitera.

MALEN: Ba... Ezertan ez.

PETRA: Esaten nizuen nik...

MALEN: Ez dago ezer egiterik. «Barrena» basarria puska guziekin. Hipotekapean daude eta ez nere eskuan.

EDUBIJIS: (*Axanpaz*) Ezin diteke! Nola ordea?...

PETRA: Ikusia zegon!

EDUBIJIS: Eta zer egin bear degu orain? Eliza berria egiteko asmo guziak atzeratu?...

MALEN: D. Justo zure senar jaunari galde zaiozu. Paper eta agiriak nola dauden ark dakizki ondoenik.



EDUBIJS: Ain isila da! Ez dizu itz erdi bat esango bezeroak ematen dizkien arazoaz.

PETRA: Ala bear gañera letradu batek. Orrengatik dezu ain itzal aundiko gizona.

MALEN: Ark esan ez dizutena nik adieraziko dizuet. (*Larri*). Kanpoan entzun aurretik, jakin zazute gaur Juzgadua onera etortzekoa dala gure etxearen «Kiebra» deklaratzera! (*Zingurin ta antzika*) Gureak egin du! Emendik botako naute nere aur ta guzi!...

EDUBIJS: (*Txundituta*) Ene! Jesus! Ez da egia izango!

PETRA: (*Otz*) Aspaldi igartzen asia nintzan. (*Eseri bedi burua makur*).

MALEN: (*suminez*) Asmatzeak poz ematen badizu. seguru dezu oraingoan. Galdua naiz! Zer egingo degu ba!

EDUBIJS: Baiñan Malen! Ez dezazula orrelakorik esan! Ezin sinetsi det. Naigabez betetzen nau. Agur gure asmo, gure usteak!

MALEN: Ez naiz batere arritzen. Olakotan usteak ustel atera oi bait dira.

EDUBIJS: Zure alde zerbait egin al bagenezake?... Kiebra ori eragozteko...

PETRA: Garai onean! Orain berandu da. Neurriak artzekotan, lenago artu bear ziran. (*Esertokitik jeiki ta ibiltzen asirik*) (*Maleni salatuz*) Eta zuk... ez bait dezu guk esandakoa egin nai izan...

MALEN: Esatea errezagoa zan egitea baño... (*bazterreko silla batean eseriaz malkoak ezin gorderik*).

EDUBIJS: (*Petrari*) Ez zazula andrea dagon baño geiago atsekabetu. Nai-koa du buru gañean.

PETRA: Tiburtzio bizi izan balitz ez zitzaion ori gertatuko.

MALEN: Alargun gelditzea ez zan izan nere errua...

EDUBIJS: Ez Malen! (*Berarengana joanez poztu nairik*). Zure barrena lasa zazu! Juzgadukoak ez dituzu ain gitxon txarrak, eta nere senarra zure alde aleginduko da. Nik ere lagunduko zaitut.

PETRA: Gauza onela dagon ezkerro, emen alperrik gaudela uste det. Eta onena joatea degu ea kanpoan laguntzaren bat arkitzen degun. Emen denbora galtzen ari gera.

EDUBIJS: Ortan arrazoi ematen dizut Petra. (*Maleni*) Begira Malen, zaude trankil. Bagoaz ta bidez Elizara sartuko gera zuregatik otoitz egitera. Jainkoari argitasuna eskatzera.

PETRA: Bai, etxean geldi zaitez. Aurrai zer gerta ere, obe dezu. Beste itzuli bat egingo dizut gero, nere bearrean arkitzen bazera ere... Adio bada! (*bijoaz*).

(*Bi bixitariak ezkutatu ala Malen bat batean jekita suminez laisterka sukaldera sartzen da. Une batean antzez-tokia iñor gabe gelditzen da. Ateko txilin otsa entzun bedi ta ondoren Bitor Banku-zalea sartuko da atzetik, Anastasio dualarik*).

ANASTASIO: Nor ote zan da?... Ba-ezpada iriki dizut.

BITOR: Zer uste zenduen? Lapurren bat nintzala? Ni naiz, bada.

ANASTASIO: Ezagutu zaitut, bai, baiñan gaur ernai egoteko eguna degu. Beste birigarro batzuek bait dabilta etxe inguruan.

BITOR: Birigarroak?... Ni ez nazu «txinbo» bat besterik. Alegia bilbotarra.

ANASTASIO: Nolanai txoria... ta badakizu «mokodunak» besteren soroan alea jaten dutela, erein bage.

BITOR: Barriketa laga zazu ta zoaz etxeokoandreaki esatea berarekin itze-gin nai detala. Aguro gañera!

ANASTASIO: Gaur guziok goiztar zabiltzate, presaka, atarramendu txarra ematen diot, susmo onik ez beinik bein.

BITOR: Iñork ez dizu galdegin iritzirik, etxeokoandreaki emen nagola esateko baizik... Beraz ez bazoaz neronek ots egingo diot atetik.

ANASTASIO: (*Uzkur*) Nik ere nere eginkizunak baditut... Eta nork agindua ere bai!

BITOR: Ez izan ain nagia... ta etxeokoandreaki deitu zaiozu! (*Sakeletik dirua atera eta eskupekoa emanetz*).

ANASTASIO: Itz ori ez entzuteagatik edozein gauza egingo nuke. Nagia ni?... Banoakizu (*joanez*) eta... eskerrikasko!

BITOR: Ez al da aspaldi Xalbador azaldu?...
ANASTASIO: (*Sukaldeko atetik burua itzuliaz*) Ez badakizu ere aretxen zai gaude. (*bijoa*).

BITOR: (*Antzez-tokitik batetik bestera ibilliaz*) Zai, e? Aurrea artu bear diot. Oraingo ontan sarera eroriko dira etxe au ta... etxeokoandrea. (*Norbait datorrela oarturik bere buru ta soñekuak antolatzten ditu edertu naiez; eta erne jartzen da sukaldeko ateruntz begira, Malen agertu arte*).

MALEN: (*sartuaz*) Egun on Ulibarri jauna!

BITOR: (*elkarri eskua estutuaz*) Baita zuri ere, Etxekoandre. Zer modu?

MALEN: Ondo! eskerrikasko. Ez nuen uste gaur etortzekoa ziñanik.

BITOR: Iruñen negozio aundi bat sortu zait eta bidez zuri bixita egitea otu zait... giza-legez.

MALEN: Estimatzekoa da, millesker! Eseri zaite ordea! eseri.

BITOR: (*Galaiki*) Zu eseritakoan nere txanda izango da. Bitartean ez...



MALEN: Ala nai baldin badezu eseriko naiz bada. (*Biok elkarren ondoan silla ala besaulki batean jarririk*).

BITOR: (*Limurkeriaz*) Poz aundi bat izan oi det beti zu agurtzeaz...

MALEN: (*Sinesgaitz*) Gaur ez det uste oso une pozgarrian etorri zeranik.

BITOR: Zer bada? Zerbait oker gertatzen al zaizute? Trixte ta goibel ote zauden irudi zait, bai.

MALEN: Ez da gutxigorako... Poz-biderik banu...

BITOR: Ez dezu larritu bear negoziak ez ba zaizkitzu ondo irtetzen. Orretara oiturik gaude komertzioan gabiltzanok!

MALEN: (*zeatz*) Gu ez gabiltza! ordea atakan gaude... Ondotxo dakizu ori, ta zure Banko-etxeak ez badizkigu larogei milla duro aurre-ratzen Kiebrara goaz. Juzgadoa ate joka degu.

BITOR: Zu ikaratzeagatik zarata pizka bat aterako dute, baiñan ez beldur-tu...

MALEN: D. Justo letradua gaztigatzera etorri zaidaneko zerbait izango da. (*Naigabepean*) Ez dakit zer egin!

BITOR: Zu orrela ez ikusteagatik edozein gauza egingo nuke. Ta bai ba D. Justorengana joan ere arazoa zertan dagon ikustera. Kol-pea geldí arazi ditekela derizkiot.

MALEN: Alperrik da, ortan leia gera ta Juzgadoak ez du itxoin nai, diru gose da nunbait.

BITOR: Dirua ere sortuko genuke Malen...

MALEN: Dirua?... Txanpon bakar batzuek balira... Larogei milla duro! Nundik atera bear ditu, zorretan dagon alargun gajo batek? (*Malkoa dariola*).

BITOR: (*Losintxa ta asmo lizunez*) Malen! (*onengana geiago urbiduaz*) Diru askotxo da, baiñan, esan dizut zuregatik... zu orrela ez ikusteagatik (*arpegia irriki makurrez ikutuaz*) eder ori! ditudan diru guziak aurreratzeko gerturik naukazu. Eta nere ize-nean eskatu diteken kredito dana zure alde jarriko det.

MALEN: (*besaulkitik jekidz*) Ez! Ni altxa nadin ez det nai zu erori zaitezen.

BITOR: (*Ondoren jarraiturik*) Eroriko banintz ere zer?... Aski ordain luke nere buruak zure esker ona irabaziko balu...

MALEN: Ez ditekena da. Esker ona bai baiñan...

BITOR: (*Malengana berriz urbiduaz eta eskua artzen diola*) Malen! Beti gogoko izan zaitut! Eta orain naigabepean zakusdalarik... arego! Bai, esaneko naukazu... Maite zaitut!

MALEN: (*Au entzundakoan, larritzen asita eskua azkatuaz igesi doa*) Ez, ez, ezin diteke, onradu ta garbi joka nai det. Zu ezkondua zera!

BITOR: Zoritzarrez, bai, baiñan, aspaldi nere andrearengandik berezita bizi naiz, bizi-alargun; eta zu alargun-bizi zoragarria, zaitut biotzean... aukeratua... (*Malenengana urbidu naiez*).

MALEN: (*Iges egñiez*) Ez, ez! Ez nazazula ikutu...

BITOR: Ez bildur izan Malen!, zure borondatearen aurka ez da ille bat ere ikutuko. Baiñan jakin zazu ezin gorde dedala zureganako amorio ta maitasuna. Zu orrela bearrean ikusteak samin-tzen nau; eta zauden estuasun ortatik aterazteko, dedan diru guzia eskeintzen dizut. Zure esku dago... eta batere ordaiñik eskatu bage.

MALEN: Eskerrik asko, Bitor. Ori besterik da. (*isilunea*) (*Berriz musin*) Baiñan, ez! ezin dezaket zugandik ezer artu! Zer esango duten ere!

BITOR: Ez du iñortxok jakingo. Zuk eta nik jakitea aski da. Emendik alde egingo genduke. Autoan eramango ziñuzket eta ekaitza igaro ondoren itzuliko ziñake etxera... Adiskide on batzuek bezela jardungo genduke. Erritik kanpora ez gaitu iñork ezagutzen.

MALEN: Oi ametsak! Ez al dakizu ezin utzi ditudan bi aurren ama naizena?...

BITOR: Or dezu iñude zaarra zu baño aur-zai ohea. (*Berriz Malenengana urbiduaz*) Zu, Malen, gazte eta ederra zaude eta ez al dezu merezi, noizik beinka, etxetik atera ta egurastea?... Bakartasun goibela utzi ta bizi-modu alaiago bat eramatea? Zure esanera nago...

MALEN: Ez zaude zu su-emaille txarra! Ni kilikatzen... Utzi zugun gai ori, oraingoz!...

BITOR: Nik ez det jarraituko gogoko ez bazaizu. Eta gaizki esanak bar-katu. Ezin gorde nizun, ordea aitortu bage, emen barruan nabaitzen dedana.

MALEN: Barrungoa zapalduta kanpokoak ematen dit orain naiko lan. Juz-gaduko arantzak, Kiebrak!...

BITOR: Utzi on nere gain! Eta ez naiz nor izango, ez badet auzi ori anto-latzen; ez badizut arantz ori biotzetik ateratzen.

MALEN: Biotzetik ala sakeletik...

BITOR: Bietatik... Oraintxe noakizu Bankura (*abituz*).

MALEN: Berandu izango da onuzkero. Nola nai, nik emen, etxean geldí bear det zai.



BITOR: Beñere ez da beranduegi andre batenganako borondate ta ongi-naia agertzeko. (*Eskua Maleni estutuaz*) Laister arte Malen!

MALEN: (*eskua azkatuaz*) Ai ene! Ez orrenbeste estutu.

(*Bata beslearen ondoren bjoaz kaleruntz. Andik unetxo batera Iñude ta Anastasio sukaldeko atetik sartzen diralarik*).

IÑUDE: Anastasio! Ba al dakizu zer ari naizen ausnartzen?... Gaurko emengo joku au ez zaidala batere atsegin!

ANASTASIO: Onoko azken jokalaria au ez beinik hein. Ikusi al dezu?

IÑUDE: Ate zirrikotik ez det begiratu nai izaten, baiñan susmoa artua daukat otso ori ardi billa ote zetorren...

ANASTASIO: Nik ardi-larru ta artille guziak eskutatu ditut, baezpada. Jende geitxo dabil emen gauza onik ateratzeko.

IÑUDE: Jendea batera datorrenean, gaitz erdi. Bakarka datozenean da okerreana.

ANASTASIO: Malkarrota edo purrut egiteko zorian bagaude gure etxeko andreaki ezer gutxi ostuko diote. Urre ta zillarrik ez beintzat.

IÑUDE: Zuk uste dezun baño geiago. Gizarajoa! Kaballero itxuran izan dan ori «naskante» zamarra ote dan begiz joa daukat. Ez da fiagarri.

ANASTASIO: Ez dakit zergatik diozun, Gizon dotorea da...

IÑUDE: Dotoregia! Ez al dakizu gizon eta emakumezko bat elkarrekin bakarrik daudenean ez daudela seguru?...

ANASTASIO: Gu ala gaude bada...

IÑUDE: Gu atso-agure bi gaituzu ordea, limurtzen asteko. (*destañez*). A zer nolako galaia zu!...

ANASTASIO: Ni? Irurogeitamarrekoa! (*Isekaz*) Zu berriz 25 urteko neskatxa!

IÑUDE: A tontosko! Zu gaztetan neska bati zirri egiteko gauza ez ziñan izan da... Ta orain?...

ANASTASIO: Ez zirri ta ez mirri! Naiago det salda beroa.

IÑUDE: Ori esan! tripa zai alena! Ba amorio-konturik zer dan ez badakizu, zaude isilik. Ezkondata bizi izan geranok maite-miña zer dan proaturik gaude.

ANASTASIO: Naiko izan det nere agiñeko miñekin!

IÑUDE: Agiñeko miña?... Mutilzarrok, agiñeko miña ezik, zikiña jango zaituzte.

ANASTASIO: Eskerrikasko zure lorearengaitik! Ez det uste garbitasunean iñongo etxeko alabak irabaziko didanik.

IÑUDE: Ori bai, gizon txukuna zerala aitortzen dizut. (*Leunago*) Anastasio barkatu itz latzak esan badizkitzut. Gure etxekoandreak ematen dit kezka. Gazterik alargun gelditu zan bi aurrekin.

ANASTASIO: Gure nagusiarekin, lanak aurreratuta, ezkondu zala ere esaten zuten.

IÑUDE: Zaude isilik likiskeri lotsagabea! Zer dakizu zuk gai ortaz.

ANASTASIO: Ez da nai ere!

IÑUDE: Nik bai ba... Senar zanarekin zer pasa bear izan zituen ondotxo dakizkit. Ura ildakoan, berriz, bi aur ezik, zorrak utzi zizkion... Eta Koñata! Laguntza ederra!

ANASTASIO: Ez da gezurra! Obeto nago, nagoan bezela! Mutilzar!

IÑUDE: Bai emakumezkoak jaten ematen dizugula! Ta etxea gaizki doala ta... eskua luzatuko digunik ez!

ANASTASIO: Makiña bat jende badabil ba... sartu-atera...

IÑUDE: Geigi, ta andre alargun eta bakar eta ederra... ta etxean gerra! Ez jakin zer nolako erabakia artuko duan.

ANASTASIO: Juezak pakezale omen dira ta ez ote zaizkigu iskamil billa etorriko. Kiebraren aitezik ez diet etxean sartzen utziko. Almazenean ez beintzat. Ate guziak itxiko ditut.

IÑUDE: Orrekin ez degu ezer aurreratzen. Juzgadoko auzi-maisuak giltzik bage ate guziak aisa irikitzen dituzte. Gure etxekoandreak bear duna, zera da, arpegi emango dun gizon prestu bat. Apaiz edo letradu dana! Malentxo koitadoa! Alaba banu ez lidake min geiago emango. Nere bularrez azia bait det nere aurra galdu nuanean.

(*Motor-otsa, klaxon-turuta, dei ta zarata entzun bitez. Atejoka ari diralakoak.*)

ANASTASIO: Zer da ardalla auxe!

IÑUDE: Ate-joka ari dira! Noan nor dan ikustera!

ANASTASIO: (*Erabat izaturik*) Ez zoazela! Juzgadoa izango da. Ez idiki aterik! Eskopeta billa noa! (*Batetik bestera zalapartan dabilela*)

IÑUDE: A zer nolako gizon bulartsua. Zaude geldirik! (*berriz ere lengo otsak entzun bitez*)

ANASTASIO: Emen dira, bai!

IÑUDE: Sartu ditezela ba orrenbeste doñu atera bage...



(*Ateruntz joanez eta zabal-zabal egiñez*)
(*Xalbador almazeneko atetik sartuaz*)

- XALBADOR:** Baiñan, zer gertatzen da emen, onela ate guziak itxitzeko? Gorra al zaudete?
- IÑUDE:** Jueza zala uste (*Txundituta*) eta Xalbador izan! Nundik nora zabiltz gizon!
- ANASTASIO:** Izu ikara ederra eman diguzu beintzat!
- XALBADOR:** Zuek izan izutiak! koldar alenak ez bestenak! Ate joka aritu naiz alperrik! Kamiona daukat etxe aurrean gelditua ta zuek emen berriketari. Bi milla arkume larru ta irurogei artille saku bereala almazenean sartu bear ditugunak. Beraz ez onela egon. Mugi Anastasio!
- ANASTASIO:** (*Sinisgaitz*) Sartu?... Sartu?... ta guziak kentzen baldin badizkigute?
- XALBADOR:** Kendu?... ez arranepola! jabe naizen artean! Nereak ditut, nere diruaz erosiak...
- IÑUDE:** Xalbador! (*larriturik*) Ezagun da ez dakizula emengo berri. «Kiebra» jo degu ta laister Juzgaduko auzi-maisuak etortzekoak dira gure etxe ta puskak baitzera...
- XALBADOR:** (*Arriturik*) Bai zera?... Ez da egia izango? (*zuzpertuaz*) Igual da! Puska auek nereak dira eta ez dizkit ez Juzgadua ta ez Gobiernuak ikutuko. Zintzo ordainduak bait ditut.
- IÑUDE:** Lenago etorri izan baziña...? Nun ibilli zera orain arte tratolari, korrikalari ori...?
- XALBADOR:** Ori bai, merkatu ta azoka guziak korri ditut Bribiescatik Elizondoraño... Ta ez alperrik ez ezen! arraiepola. Larru ta artille sail ederra bildu det eta erosketa ezin da ohea gerta zait. Geroztik prezioa goratzen asia da ta irabazi «dezen-tea» atera nezake. (*Anastasiari*) Ez lo egon da ordea!
- IÑUDE:** (*pozik*) Zu etxerako, Xalbador.
- XALBADOR:** Anastasio auzokoa dala dirudi. Tira gizona asi zaitte lenbaitlen almazenean puskak sartzen! Eta ekarri zazu pardel bat onera. Ekin! Nik kamiona baztatu bear det.
- ANASTASIO:** Bai gizona! Ori ere egingo degu bada. (*Almazenera bijoa*)

(*Iñude ta Xalbador isil-izketan ari dira. Malen sartzen da*)

- MALEN:** Zer da gaur etxe ontako «novedadea?»... Falta zana etorri zaigu, Iñude!
- XALBADOR:** Emen naiz bai, etxeoandre! Autoan ibillia, errez egiten bait da!
- IÑUDE:** Guziak berri txarrak izan ez ditezen. Argi izpi bat sartu da gure etxean.
- MALEN:** Zerutik bidalia, noski!
- XALBADOR:** Ez dakit nundik, zerutik ala inpernutik, baiñan bidez-bide mendi-zelaiak korri ditudala, bai! Kastilla, Naparrua ta Euskal erri osoa, naiz ibiltzez gelditu gabe. Nekatuxea nago...
- MALEN:** Ohea da ibiltzea ta ez etxean itotzeko zorian egotea. Betiko «leloa»: zorrak ezin ordaindu, Xalbador. Luzapena, luzapenaren ondoren ta azkenean, badakizu, Juzkadoak ez du itxoiten. (*Bat batean larri-antziz*) Laister ditugu emen, eta lotsa au ez ikusteagatik edo edozein lekutara aldegingo nuke! (*Ero antzera*) Bitor Bilboko bankuzaleak bere autoan eramane nau..., ta joan egingo naiz...
- IÑUDE:** (*Besotik elduaz*) Ez, etxeoandre! zuk etxean geldi bear dezu. Arpegi eman bear da.
- MALEN:** Dirurik gabe ez du arpegiak balio.
- XALBADOR:** Arpegia eman ezkeror dirua ere egun gutxi barru sortuko genuke.
- MALEN:** Berandu da onuzkero (*malkoa dariola*) Banoa!
- IÑUDE:** (*Besotik eltzen diola*) Ez zaitez joan!... Ez!... Nere bularrez azitakoa zaitut. Galdu nuan nere aurraren orde alabatzat zauzkat, naiz ni... neskame izan. Ama banintzaizu bezela agintzen dizut... Geldi zaitte Malentxo! Etxekoandarearen lekua... etxea da, bai egun on eta bai egun txarretan.
- MALEN:** (*Bere buruaz burrukan*) Gogorra da norberaren jabe ez izate au! Juzgadupera erori bearra.
- XALBADOR:** Ez zaituzte kartzelara eramango, etxeoandre! ez gaitzik egingo!
- IÑUDE:** Geienaz diru billa etorriko zaizkitzu...
- MALEN:** Toki onera! Dirurik banu...
- XALBADOR:** Ori ere antolatuko degu!
- IÑUDE:** Jakiña!



MALEN: Gogorra ez bada ba gertatzen zaidana. Ezin nere etxean agindu.
Morroiak nagusi, ta neskameak etxeoandre (*etsipenez txo-
rabiatuta*) Alargun gajo baten egokiera latza!
IÑUDE: Biotz on eta esker obeagokoa izan zera beti Malentxo! eta ez
orain bururik galdu! Mirabe nazu baiñan egizu nere esana.

*(Almazen aldetik zalaparta ta otsa entzun bitez eta bereala
Anastasio ager bedi bizkar gainean pardel aztun bat daramala,
sartzerakoan anakaz gora eroriaz).*

ANASTASIO: (*Lurretik jekiaz*) Aguazilla, aguazilla! Juzgadoak datoz.
Egin zangun anka!
XALBADOR: (*Altxatzen laguntzera joanez*) Baiñan gizona! Ori al zan guzia.
Zama gutxirekin lertu zera!
IÑUDE: (*Arras ikaraturik*) Ai ene! Gureak egin du!
MALEN: (*Igesiari emanetz*) Ikusia zegon! Ez, ez! Noan! (*sukaldeko atetik ezku-
taturik*)
XALBADOR: (*Anastasio zutik jarritakoan aurrez-aurre mintzatuz*). Nun ikusi
dezu zuk ordea Aguazilla?...
ANASTASIO: Atarian da! (*bildurrak aidean joanez*) Eskopeta billa noa! Bada-
torrela! Ez al det ba nik ikusi! (*bijoa*).
XALBADOR: Ori dek... larria!, gizon bulartsua!... Nere puskak toki onean
utzi dizkat. (*pardela baztertuz*) Ez balore, ta ez balio!
IÑUDE: Baztertu zazu, bai pardela bestela emen galduko zaizu.
XALBADOR: Ez alajaña! nere diruz ordaindu ditut eta onek eman bear
digu irabazia, etxe au altxa dedin!...
IÑUDE: (*Izuturik*) Ona emen aguazilla!... (*Banko-mutil diru-jasotzaille orieta-
ko bat ager bedi, larruzko zorroa galtzarpean, kasketa buruan eta
urre itxurazko botoidun jantziatz*)
BANKO-MUTIL: Egun on! «Letra» onekin nator!, (*agria Xalbadori eskura-
tuaz*)
XALBADOR: (*Papera azertuaz*) Bai!, nere gain artzen det. Itxoin zazu pizka
bat. (*Agria pirmatu ondoren itzul bekio Banko-mutillari*) Torizu!
Zoaz Bankura!
BANKO-MUTILLA: Eskerrikasko! (*Buruaz agur egiñez bijoa*).
XALBADOR: (*Iñuderi*) Ikusten? Zer nolako gauza erreza da aguazilla bidal-
tzia?...
IÑUDE: (*Pozik*) Pirmatzen jakitea gauza ona da!
XALBADOR: Ez beti! Batzuetan gauzarik txarrena!

IÑUDE: (*pozez ezin egonez, Xalbador besarkaturik*) Xalbador! zu zaitugu sal-
batzaille!...
XALBADOR: (*astiro*) Ori... gero ikusi bear.

(Oiala geldiro)



III EKITALDIA

(D. Justo letraduaren lan-tokia. Erdi aldera ministro-mai eder bat, gañean paper asko dituala, baiñan txukun jarriak. Orma inguruan aratza ta apalak liburuz beteak. D. Justo mai atzekoaldean eserita dago jendeari aurpegi emanez, mai aldamenean, saiezka, eserleku zenbait bixitariantzat. Kuadro ta olako geletan oi diran apaingarriak. Oiala altxatakoan D. Justo bere besaulkian eta Petra aldamenean eserita jardunean ari dirala agertu bitez).

PETRA: Nere koñataz dabilzan susmurrak zuk iñork baño obeto adieraziko dizkidazula eta emen etorri naiz, nere aita konfeso-rearen urrengo zugar bait det konfiantzarik aundiena...

D. JUSTO: Eskarrikasko zure uste onagatik. Letraduok ere, sakramenturik gabe, baiñan tira! aitor-entzuleak gaituzu, beti egiak osorik esaten ez badizkigute ere!

PETRA: «Kiebra» ortaz zer dan berri jakin nai nuke ba...

D. JUSTO: Berri txarrak! Petra! Epe ta luzapenak bete dira ta Juzgaduak «ejekutibo» aurrera daramaki. Une batetik bestera etxe ta ondasunez jabetuko da ta zure koñata kalean geldituko da.

PETRA: *(larri)* Au da kontzientziko kezka! Ez det lorik egiten! Ez al da ordea beste erremediorik?... Paperen bat eginda edo?...

D. JUSTO: Egiteko guziak egiñik daude. *(Karpeta batetik agri sail bat ateriaz)* Ikusten paper billa au! Alperrik. Erremedio bakararra larogei milla duro eskuan!

PETRA: «Induljentziak» balira! Ori esan diot D. Pulgentzo nere animazuzendariari. Ark koñatari laguntzera beartua nagola agindu bait dit. Kristauen lenengo legea karidadea dala-ta, alarguna ta aur bi ezin ditezkeela erortzen utzi.

D. JUSTO: Ez da dudarik! Petra. Gure erretore jauna zuzen mintzatzen da. Ebanjelioaren itzak dira.

PETRA: Bai, Ebanjelioak orrelako gauza asko esaten ditu, garai artakoak, baiñan, nik oraingo legeak zer dion jakin nai nuke. Eta ea koñata ondartzaille baten alde, ditudanak eta ez ditudanak ematera bearturik nagola ote deritzaizun... konsulta egi-tea...

D. JUSTO: Legea, legea... Gizonen legeak ez dira ain zeatzak, Jainkoaren lege-pean daude ordea... Zuk zere barrunbea aztertuz erabaki bear dezun gauza da. Legez, zere diruaren jabe zera, baiñan iritzia eskatzera etorria zeran ezker, oraingo ontan, eskua zabaldu ta sakela azkatuaz, egipen on bat ezik, arazo bikain bat, naiz zerurako ta naiz lurrerako, bururatuko dezula, diozut.

PETRA: Besten dirutik guziak dira eskuzabal. Eta D. Fuljentzio ta zu ere batera zatozte. *(Zinkuri egiñez)* Auxen da lanbidea! Bizi guzian txanponka, ta zur jokatura, aurreratutako dirutza orrela txautu bearra!...

D. JUSTO: Larogei milla duro emanda ere, zerekin bizia gelditzen zaizu, ta...

PETRA: Bai, balore-paperak salduta...

D. JUSTO: Ba ez zaizu damutuko saltzea. Bolsa beera doa ta aolkua entzun nai badidazu, lenbaitlen saltzea obe. Paperen balioa geiago jetxi aurretik, dirua eskuan gordetzeko garai da.

PETRA: Emen barruan *(sabelera eskua eramenez)* zer nolako arra dabilkidan bazeneki.

D. JUSTO: Diruak azten duan arra. Ez dezu ona osasunarentzat.

PETRA: Orrelako naigabeak ilko naute. Ene jainkoa!... D. Justo itzegin zazu, mintza zaitel!... *(eserita dagon lekutik ea eroriaz, burua makurtzen duala).*

(D. Justo bere alkitik jeikirik Petrarengana urbiltzen da ta leunki burua altxa arazten dio)

D. JUSTO: Altxa buru ori Petra! Goruntz biotza! Izan zaitte kementsu! *(Ser-molari gtxa)* Zuen familiaren gañera lotsa erori ez dedin, koñata ta bi illoben izena ta etorkizuna zainduaz bear duten dirua eskeñi zaiezu. Au dezu nere iritzia. Bestela, jendeak zer esango luteke? Lagundu zenezakienean erortzen utzi dituzula! beartsu zeudenean ez diezula jaten eman; ez estuasunetik atera. Ez... gañerako erruki egintzak agintzen duana egin...

PETRA: *(eserlekutik altxata, damuturik)* Arren! D. Justo Isildu zaitel! Ez zazu-la itzegin geiago, biotza erdibitu didazuta. Zure esana egin-go det.



D. JUSTO: Ongi da. Ez ziñala entzungor izango banekien. Une larri ontan biotza ikutuko nizula ere bai.

PETRA: Biotza... ta sakela! Zure itzen indarrak biotza ez ezik arria ere bigunduko lekute... ta sakel estu ta itxiena iriki araziko.

D. JUSTO: Ez da nere itza zure kontzientziarena baizik; eta onek Jainkoaren aginduaren oiartzuna bidaltzen dizu.

PETRA: Itza edo... pizta nere dirua zure esku lagako det, auzia antolatu ta kiebra geldi arazi dezazun. Balore-paperen billa oraintze joango natzaizu. *(abitu naiez)*

D. JUSTO: Ez det orren bearrik. Zure firmaz aski det.

PETRA: Nai dezun bezela. Bereala jarriko dizut ta kito!

D. JUSTO: Gauzak beroan egitea obe. *(Mai gañean dagon karpeta batetik paper bat atera ta Petrari firma araziak.)*

PETRA: *(Firma jarri ondoren arnasa artuaz)* A! Orain lasago nago.

D. JUSTO: Jakiña! Pixua kenduak ematen duan arintasuna. Gero koñatari otsegingo diogu ta Juzgadura joango gera.

PETRA: *(zuzpeltuaz)* Nere anai zan Tiburtzio ta bi illobengatik egiten det sakrifizio au. Ez uste koñatarengatik... Ez orixe!

D. JUSTO: Ez zazula zure egintza onaren saria alperrik galdu.

PETRA: Ez det saririk eskatzen. Eta ez nuke nai iñork jakitea.

D. JUSTO: Jainkoak eta guk jakitea naikoa da. Ni isilik gordetzen oitutakoa nazu. Goian izango dezu ordaiña...

PETRA: Zure emazte ta nere lagun on Edubijisi bai esango diot. Eta emen nagon ezkeru agurtu nai nuke.

D. JUSTO: Etxean da ta aguro etorriko zaizu. *(Txiliña joaz)*

PETRA: Adiskide mami-mamia det eta ezin nengoke ari adierazi gabe. Biok bat egiñik gaude ta itz gutxitan antzemango dio.

D. JUSTO: Elkarren kidakoak zerate ta poz aundia artuko du zure biotz-kada nabaitzean. Emen dezu bera!

(Endubijis etxe barrura daraman atetik sartu bedi.)

EDUBIJIS: *(Arriturik Petrari)* Zu emen? Ez nuen uste ain aguro elkar berriz ikusiko gendunik. Zer gertatzen da?

PETRA: Ba... *(zalantzan)*. Zure senarrak esango dizu!

D. JUSTO: Ezin zeratela bizi elkarrengandik berezita.

EDUBIJIS: Aixtian elizako atarian utzi zaitut, eta... Urduri zamar ote zeuden...

PETRA: Bai, Edubijis, nere kezken berri badakizu eta ez nengon trankil. D. Fuljentzio nere konfessore ta zuzendariari konsulta egi-tera sartu naiz. Eta ark esandakoaz, geiago itxoin gabe zure senarrarenagana etortzea erabaki det.

D. JUSTO: Gu ere aitor-entzuleak baigaituzu... penitentzirik eman gabe gañera.

EDUBIJIS: Nere senarra mauka zabalekoa dezu. Esanak esan estutzen ez dan orietakoa.

PETRA: Ala da. Ta ni ere berari entzunda lasago arkitzen naiz.

EDUBIJIS: Goazen etxe barrura ta jerez pizka bat arturik erabat baretuko zera.

D. JUSTO: Aisago itzegingo dezute salatxoan iñoren kezkiak gabe.

EDUBIJIS: Arrazoi dezu, bai. Goazen barrura.

PETRA: Bai, ta orrela D. Justori lanegiten utziko diogu. *(abituaz)*.

D. JUSTO: Neregatik emen egon ziñezteke, ni ere banoa ta. Beste ator bat jantzita orde. *(beatza leiora eramanez)* Au estuegia daukat eta botoia erori bait zaio.

EDUBIJIS: Nik ez dakit zer beatz dituzun. Botoi-zulo guziak xehatzeko.

D. JUSTO: Moldakaitza izaki...

EDUBIJIS: Gizonezkoa... Beste korbata ere jarri bearko daramakizuna zar-pildua daukazu-ta.

D. JUSTO: Juezari ez zaio ardura nere korbataz. Toga beltzez jantzia joaten banaiz obe. Letraduen zikin-estalia degu...

EDUBIJIS: Aterako dizut bada... Armarioan txukun-txukun jarria daukat. *(dijoala)* Goazen Petra...

PETRA: Orrelako jantziai beldurra diet. Juezarengana agertu baño lenako «Xeledon» egitea naiago nuke... *(Edubijisen ondoren joanez)*.

D. JUSTO: Aguro oituko ziñake. Guzia da teatroa munduan... *(bijoia)*.

(Unetxo batean antzeztokia utsi gelditzen da. Andik pizka batera beste atetik Malen ta Xalbador ager bitez D. Justorengana datozela. Malen kalerako moduan apain jantzita; eta Xalbador ere oso dotore tratariaren bruxa gabe.)

MALEN: Juzgadura joan aurretik obe diogu itzegin. Badakigu etxean dala.

XALBADOR: Ez degu astirik galtzerik, gure kaltean bait da. Auzitegian ez dute itxoiten, an lagun-urkoa ondatzeko zai daude berak zerbait irabazi al badute.

MALEN: D. Justorekin joanez arrera ona egingo digute.



XALBADOR: Bai, letradu azkarra ta gizon polita degu ta aleginduko da gure alde. Baiñan Juzgadura dirurik gabe baldin bazoaz, alper gaiztoan izango zaigu D. Justoren itzal ta jakituri guzia. Oraingoan Juzgadoari muturretik sartu bear zaizkio milla duroak. Bitor bankuzale arro ori aña, diruz ere, banai-zela erakutsi. Eta gizontasunez areago! (*Sobre aundi bat diru-paperez beta saketik atera ta mai gañera indarrez botiaz*).

MALEN: Geiago zera, bai, zernai gauzetan, baiñan jaso zazu arren mai gañera bota dezun ori. D. Justok zer esan bear duan ere!

XALBADOR: (*sobrea berriz artu ta gordeaz*) Jakin dezala nere «siñalea» nolako dan! Gertatutako guzia garbi adierazi nai diot.

MALEN: Lotsatu ere egiten naiz, entzun bearrez...

XALBADOR: Aundiagoak entzuten oituta dago, agidanean. Munduaren berri badaki eta ez da batere arrituko. Zer bada Malen? Ez al zera nitaz fidatzen?

MALEN: Galdegitea ere!

XALBADOR: Nik... (*batera eta bestera begiratuaz*) nere emazte egin nai zaitut... Urteak dira begiz jo zindudala... Gaztetxo giñaneko Lierni-ko eromeri aiek gogoan al dituzu?

MALEN: (*Samur*) Xalba! Letraduaren etxean gaudela! Eta alargun bat nai-zela!...

XALBADOR: Orrengatik bada nork zaindu ta begiratuko zaituna bear dezu. (*Malengana urbilduaz*) Ez dakit amoriyo itzik esaten, Malen!, tratalaritzan pasa bait ditut urte onenak. Baiñan onelako tratu gozoarengatik (*Malenen eskua artu nairik*) pozik utziko ditut beste guziak!

MALEN: Zaude isilik! Nik ez det aspaldi gozo-bizirik ezagutu. Eta artara jarria nago. Nik ikusi ditudanak! Latzak!

XALBADOR: Gogoratzen al zera Andra-Maritan alkarrekin dantzen genduenan?

MALEN: Beste dantza goibelak egin ditut geroztik. Orduan anak arin eta burua ariñago izan banituan, aize-utsa, ergelkerien ondorengo gorriak ikusiak ditut, eta ondotxo ordaindu gazteta-ko okerrak...

XALBADOR: Besteak ere ez gaituzu aingeru, pekatari baizik baiñan emen gabiltza aidoso... ta anka-libre. Zuk, suerte txarra izaki ordea.

MALEN: Ain txarra ezik. Ez dakizu, ez guzia! Nere etzipenean edozein gauza egiteko zorian nengon: nere burua putzura bota, edo

izen ona galdu, norbaitekin etxetik iges egiñez. Nik al dakit!..., zer egingo nuan zu ez baziña azken unean agertu.

XALBADOR: Igarotako larritasunak aaztu itzazu. Orain Letraduarekin kontu guziak, zaar eta berri zurituko ditugu.

MALEN: Ezin sinistatu det. Dirutan zaudela ikusten da bai eta dotore jantzita...

XALBADOR: Ez nintzan «tratalari» bruxaz etorriko letradu ta juezarengana agertzeko; ta ere gutxiago zuri laguntzera.

MALEN: Ni bada, etxeko soñekoaz nabil beti. Ez det izan aldatzeko beta-rik (*Bere burua apaindu ta panpinduaz*)

XALBADOR: (*Asegiñez begiraten diola*) Nola nai zaude gustagarri Malen!

MALEN: Isil zaitte Xalba! D. Justo datorrela uste det. Bai! bera da. (*Elkarrangandik zerbait bereizten dira isilik geldituaz*).

(*D. Justo etxe-barruneko atetik agertuaz*).

D. JUSTO: Egun on!, Ozta ozta etxean arrapatu nazute. Oraintxe ninjoan juzgadura.

XALBADOR: Ain zuzen orretara gentozen gu ere zurekin itzegitera.

D. JUSTO: Ez det uste bearrezko izango danik. Berri on bat eman bear dizuet. Bai Malen!

MALEN: Ba zan garaia D. Justo.

D. JUSTO: Zure koñata Petrak Juzgadoan kiebra erretira arazteko firma eman digu. Eta bereala noa luzapena eguardian bukatzen dalako.

(*Malen eta Xalbador elkarri begira arriturik*).

XALBADOR: (*Bat batean*) Bada... nik paperean firma ezik emen jartzen dizut dirua... (*Saketik diru-sobrea aterata main gañera indarrez botarik*) Eta zurekin D. Justo Malen eta biok joango gaituzu zor guziak kitatu ta paperak jasotzera.

D. JUSTO: Oso dirudun ikusten zaitut, Xalbador, baiñan gorde itzazu zure txanponak. Petrak gogo onez bere dirua eskeñi duan ezkerro, ark egitea aski da.

MALEN: Ez det nik aren dirurik nai. Ez da desprezio ta erdeñuz, ez. Baiñan familia arteko diru kontuak zer diran badakit. Lenago ere naigabe ta lor ugari nere koñatarekin izan ditut eta al dala, kiebra-auzi au bestela zuritzea obe.



XALBADOR: Orretarako ekarri dizut bear dan dirutza.

D. JUSTO: *(Bioi)* Zuen borondatea ori baldin bada, neri berdin zait. Orain Malen, oar txiki bat egin bear dizut: alargun zerala eta nor-baitzuek, masiatzailleak, alegia, oker iritziko dutela adiskide besterik ez dezun gizonezko batengandik, diru artzea, koñatak eskeintzen dizuna utziaz...

MALEN: Xalbador, aspaldiko ezagun eta laguna det.

D. JUSTO: Eta gizon langille, on eta prestua dala gañera, ondo dakit nik... Mesede ori asmo zuzenez egingo dizuna...

XALBADOR: Mesedea ez D. Justo, negozio ordañez ematen dan dirua baik. Etxe onen bidez, ardi-larru, ille ta abar sal-erosiaz diru asko irabazi det. Gauzak igotzen ari dira ta diru laguntza ori eman nai diot.

MALEN: Bai, D. Justo! Laguntza ori ontzat artzen det, dirua ez ezik... *(lotsaz)* izena eman nai didalako.

D. JUSTO: Karanba, karanba! Egundaño olakorik! Orduan ez da itzerdi bat geiago.

XALBADOR: Bat bakarra, D. Justo: Nere baiezkoa.

D. JUSTO: Bai ta ez, itz motz, baiñan bakoitzak esan ditzazken aundienak. Kontratu batek aña balio dutenak...

XALBADOR: Ori da bada biok elkarrekin egin nai deguna: ezkontza kontratua. *(D. Justori)* Zu zerala lekuko. *(Maleni)* Ez al da ala?

MALEN: Bai jauna.

D. JUSTO: Zorionak bioi! Nere testigutza izango dezute. Baiñan goazen lenago Juzkadura, zintzilik dagon auzia zuritzera. Eta gero, gerokoak. Ordua aurrera doa eta ez daukagu astirik galtzerik. Atozte nerekin! *(abituaz)*.

(Irurok, kaleko atetik irten bitez, zalapartan Malen eta Xalbadorek, maiean utzi zituzten puskak jasorik. Antzeztokia unetxo batean utsik gelditzen da Petra eta Edubijis beste atetik agertzen diraño).

EDUBIJIS: Errukizko obra aundia egin dezu, Petra ta Jaungoikoak saristatuko zaitu.

PETRA: Errukizkoa ez dakit, baiñan mingarria bai neretzat. Orrenbeste diru atera bearra. Illobengatik egiten det eta nere anai zan Tiburtzioren oroimenez. Koñatarengatik ez nuen egingo. Ez du merezi!

EDUBIJIS: Malen ona da, ez gaizki uste izan. Eta jakin dezanean orrela biotza ta... sakela zabaltzen dizkiotzula, belauniko, eskerrak emanaz, zure mende jarriko zaitu.

PETRA: Nai litzake orrela mixeritik aterazi ezkerro. Ni ez banau mixerin uzten... Ba ezpada ez ditut aren esku, diruak jarriko. Gauzak ondo lotu bear ditugu. Paperean garbi ipiñi nere emaitza illoben alde dala. Aitaorde zure senarra izendatuaz.

EDUBIJIS: Nere senarrak paperak zuzen egingo dizkitzu. Eta bein hipoteka kendu ta zorrak ordainduaz. Baserri ta lurrak libre geldituko dira Eliza berria egin dezagun. Zer nolako poza!

PETRA: Astiro ibilli bear da arazo oietan poza ez dedin negar biurtu. Lurrak balio aundia dizute erri inguruan eta arkitekto ta maisuen iritzia jakin aurretik ez dago ezertan asterik.

EDUBIJIS: Nola nai, Elizarako izanda modu onean salduko dezutelakoan nago.

(Etxe barrerago atetik neskame bat agertzen dalarik).

NESKAMEA: Etxekoandre! Jaun bat etorri da berorrekin itzegin nai duana.

EDUBIJIS: Nerekin?...

NESKAMEA: «Bueno»... Nagusiarengatik galdegin du, baiñan etxean ez dagola esan diodanean berorrekin berdin dala dio...

EDUBIJIS: «Klienteren» bat izango da. Sartu dedilla bada. *(Bijoa neskamea).*

PETRA: Ni ere banoa orduan.

EDUBIJIS: Geldi zaitetz Petra. Nere senarraren ezagunen bat baldin bada gerotxeago datorrela esango diot eta guk gure ariari jarraituko diogu.

(Kaleko atetik sarturik Bitor agertzen zaigu jaun aundi antzera)

BITOR: Egun on andreak! *(Agurtuaz)* Zer modu?

EDUBIJIS: Ondo! zu ere bai Ulibarri jauna! Emen *(Petrarengatik)* nere lagun bat...

BITOR: *(Eskua emanaz)* Ezagutzen det Andereño au.

PETRA: Bai, maiz izaten zera geure errian.

BITOR: Aspaldi sarritan etorri oi naiz, zenbait kontu zuritzera. Eta gaur astirik galtzeke *(Edubijisi)* zure senarrarekin itzegin bear det.

EDUBIJIS: Arixian aterea da Juzgadura joateko asmoz.



BITOR: Ara baño leen, naitanaiezkua zuan nerekin mintzatzea...

EDUBIJS: Ez dakit zer gertatzen dan emen. Gaur guzia da «naitanaiezkua, derriorrezkoa»... Begizkoak jota gaudela didirudi. Sorginkeria ote dan larritzen asia naiz...

PETRA: «Absoluzioa» artu dedan ezker, ni berriz arintzen...

BITOR: (*Asarre*) Ta ni gogaitzen luze-irizita! Ez daukat astirik galtzerik eta zure baimenaz, etxeokandrea, telefonoz otsegitera noa.

EDUBIJS: Itzegin zazu, itzegin, orrek barrena lasatzen badizu. Ea telefonoko aritik xpiritu txar guziak igesi dijoazen.

BITOR: (*Urduri telefonoz otsegin naiez*) Entzun! 5-64-38 Juzgadua al da?... Emen Ulibarri!... D. Justo letradua or al dago?... Ezetz? Eskerrik asko! (*Itzaldia etenaz eta telefono tresna bere lekuan utzirik*).

EDUBIJS: Nere senarra Juzgadian ez badago, Malen alargunaren etxean izango dezu, paperen batzuen billa joana edo...

BITOR: Paperak..., paperak... Une ontan paperok ez dute zer balio eta denborak, bai. Aldia urrea da. Au dala, barkatu, baiñan uzten zaituet. Egunon-etxeokandrea! Egun on andereño! (*Bioi eskua emanaz*) Urren arte! (*bijoa*) Arraioa!

EDUBIJS: Zoaz ondoto! (*Aitaren egñiez*).

PETRA: Jainkoak dizula egun on!

(Bitor aienatu ta gero)

EDUBIJS: Ori da gizonaren ezin egona! Zer ote dabilki buruan!

PETRA: Ez diot batere atarramendu onik artzen, nora dijoan aztarrena atera nai det eta jarraitzera noakio. Ekaitza da!

EDUBIJS: Nik ere lagunduko zaitut bada... turmoia sortzen bada ez zaitut bakarrik utzi nai. Zaude pizka bat! Euritako zira ta gañerakoak artzera noa.

PETRA: Bai, Santa Barbarak zaindu gaitzala. Tximistaren aurka.

OIALA

ALDAKETA

(Oiala berriz altxatakoan, lenengo ta bigarren ekitaldiko antzezlekua bera agertzen da. Ots: Malenen etxe-barne ta almazen-dendarako bitartekoa. Iñude ta Anastasio berriketan ari dira).

IÑUDE: Onela ezin giñezke bizi. Emen kokilduta turmoia noiz lertuko dan zai.

ANASTASIO: Tximistak arrapatzen ez bagaitu.

IÑUDE: Aterpean gaudela ez, itxian gaude ta.

ANASTASIO: Iñoiz iñusturia tximinitik sartu oi da.

IÑUDE: Emen ez degu tximinik eta gañera Santa Barbarari kandela piztua diot.

ANASTASIO: Juzgadua gañean dagola kandela alperrik da. Elizarako gorde zazu. Au al da bizitzea?: ez lo, ez jan eta ez lan...

IÑUDE: Lan eza egia da, ez dezu kolperik jotzen. Gañerantzean ez dakit.

ANASTASIO: Nola nai dezu ezer egitea sosegurik gabe? Itxumustuan juzgadoak ate-joka etorriko zaizkigu-ta...

IÑUDE: Ez neri txorimalorik aitatu ta bildurrak aidean jarri arazi orain urrena bezela. Nun ote dabilta gure Malen eta Xalbador?

ANASTASIO: Auskalo! Kartzelan sartu ez badituzte, onuzkero...

IÑUDE: (*Asarre*) Nik bai sartuko zaitudala zu... sotoan edo lur azpian. Ustela ez bestena!

ANASTASIO: Nik ezin al det nere iritzia esan edo zer?

IÑUDE: Esan, esan? txorakeririk ez beintzat ni larriarazteko. Naiko kezka ere badizut bestela ere. (*Txilinotsa entzun bedi*).

ANASTASIO: Txilin-ots ori egitazkoa zan noski? eta ez nere zintzurretik ateria.

IÑUDEA: Karterua edo alakoren bat noski. Bazoazke atea irikitzera.

ANASTASIO: Diabrua bada ere ez eman gero neri errurik! (*berriz txilinotsa*).

IÑUDE: (*Beldur antzera*) Dana dala... zoaz atera itxoin arazi gabe.

ANASTASIO: Patxara gutxiko norbait, seguru! Ikusi zagun bada...

(Kaleko ateruntz bijoa eta andik instante batera D. Bitorekin sartzen da).



IÑUDE: (*Kaleruntz erne ta urduri begira egon da gero D. Bitor dala ikustean zerbait lasatzen da, berekiko esanaz*) Au al zan?... Gutxiena uste, ta... gutxiena gustatzen zaidana...

BITOR: (*diosalik egin gabe sarturik; eta zakar*) Nun da etxeoandrea?...

IÑUDE: Guk al dakigu! Etxetik aspaldi atera zan...

BITOR: Eta ez al dakizute nora joana dan?... Arritzekoa da!

ANASTASIO: (*Zerbait adierazi naiez*) Zera... Le...

IÑUDE: (*Etenaz*) Nagusi-etxeoandreak uste al dezu nora dijoazen beti esaten digutela?

BITOR: Bada, nik naita naiez jakin bear det, orain nun dagon eta zeñekin joana dan...

ANASTASIO: Nun... Zera... Xal...

IÑUDE: (*beriz etenaz*) Zeorrek billa bearko dezu. Guk ez dakigu ezertxo.

BITOR: (*Asarre*) Ez daukat itxoiterik. Esan nai ez badezute, ez esan, neronek billatuko det kostala kosta.

ANASTASIO: Ez da urruti izango. Errian da, nola nai, traturen bat egiten.

BITOR: (*biguñaño*) Emen nagon ezkerro (*Anastasiari*) Etxean artilla ta larru asko al dezute salgai?... Ikusi dezazun ez naizela ezer txarrerako etorri, dituzuten guziak artuko nizkitzuteke.

ANASTASIO: (*maltzurkeriaz*) Zu baño goizago ibilli diranak badituzu.

BITOR: Ez ziran Juzgaduko «beleak» izango?...

ANASTASIO: Bai zera! Beste txori arin ta alaiagoak!

BITOR: Xalbador tratalaria tartean al zan? Orren aldean gure Banku-etxeak askozaz geiago ordainduko zukean.

ANASTASIO: «Balizko larru ta artilleak... preziorik ez!» Garai onean zatoz!

IÑUDE: Artu nai ezik, aitzeki-maitzeki ibilli ta gero...

BITOR: (*Xalbadorengatik*) Erri txikiko tratalari koskor batek eman dizuten baño diru geiago jasoko zenduten bada... Zer da bada Xalbador ori!

IÑUDE: (*Arro ta minduta*) Nere illoba! Ura bezin fiña izatea nai zenduke! Alajaña!

BITOR: (*Nardez begiratuaz*) Nik ez det, emakumezkoekin eztabaidan sartu nai... ez neskamearekin jardun...

IÑUDE: Zarra naizelako. Gure etxeoandrea bezelako batekin, or zabilta bada ezin limurturik...

BITOR: Jende xarekin mokoka aritzea azkeneko gauza da. Beraz, or konpon (*bijoa arin, bururik itzuli gabe, ez agur eta ez ario*).

ANASTASIO: Zertara etorri zaigu bada? Arroputz alena!

IÑUDE: Aundiki ez bestena! Etorri dan bidetik bijoala... Zer dala jakin bear du likiskeri orrek gure etxeoandrea nun dabillen?

ANASTASIO: Gaur ez gaituzte pakean utziko. Bat joan zaigu eta... (*kaleruntz begiraturik*) emen datozkigu beste bi... gonadunak, gañera!

IÑUDE: (*Datozenak ezagaturik*) Señorak dira-ta...

ANASTASIO: Ez dira obeak izaten. Letraduaren andrea ta gure etxeoandreen koñata Petra dituzu.

IÑUDE: (*Urduri*) Ta gure señorita zaarrak sukaldean ikusmirara sartu naiko du. «Kuxidade» ederrean arkituko naute (*Bere burua txukunduaz*).

ANASTASIO: Lanerako moduan gaude, emakume! Ez al da ala?

IÑUDE: Zu bai, lanerako moduan... ez lanean ordea...

ANASTASIO: Ori ere entzun bear nuen nik... (*burua azkuretuaz*)

(*Petra ta Edubijis sar bitez*)

EDUBIJIS: Egun on Jainkoak dizuela!

PETRA: Ai Maria! etxeoai!

IÑUDE: Txit garbia! Ongi etorri «señorita».

PETRA: Lasai zaudete, emen ezer egin gabe...

IÑUDE: Etxeoandrea joan zaigu eta emen ari giñan itzaspertu bat egiten.

ANASTASIO: Almazena itxia daukagu eta ez dago beste zer egin aundirik.

IÑUDE: Emakumezkoentzat etxean beti izan oi da lana.

EDUBIJIS: Ori esan «Mañaxi». Ez dezu alper itxurik.

PETRA: Guziengatik ez diteke beste orrenbeste esan (*Anastasio ta biak errezeloz begiratzen dute elkar*). Malen etorri bitartean aurrak ikusiko ditugu.

EDUBIJIS: Oso pozik. Ain dira zoragarri!

IÑUDE: Lotan utzi ditut... señorita... (*gogo txarrez*).

PETRA: Ez ditugu esnatuko (*sukalderuntz abiaturik*)

EDUBIJIS: Goazen bai! Musu bana eman bear diet.

PETRA: (*Iñuden gogo txarra nabaiturik*) Emen geldi nai badezu guk sukaldean itxoingo degu.

IÑUDE: Ez, ez, lagunduko zaituet... (*Petra, Edubijis ta ondoren Iñude sar bitez sukaldeko atetik*)

ANASTASIO: (*Sukaldeko atean geldi dan Iñuderi*) Ni, kalera poxpoloak erostera noa!

IÑUDE: Aitzeki ederra tabernara joateko. (*bijoa*).



ANASTASIO: (*Almazeneko atetik irtenaz*) Langille batek ez badu ainbeste eskubide... nekea aztutzearren!...

(*Une batean antzeztokia utsik. Malen eta Xalbador kaleko atetik sartu arteraño*).

MALEN: (*Asetasunez*) Alare! Uste baño lenago antolatu degu arazoa. Eske-rrak zuri, Xalba, etsaien atzaparretatik libratu nazulako.

XALBADOR: (*Atsegin ez begiraturik*) Diruak egiten dituan mirariak, Malen...

MALEN: Jainkoa dala bitarteko, ordea. Sekulan ez dizut ordainduko egin didazun mesedea. Ezer gutxi bait det zuri eskeintzeko.

XALBADOR: (*gozoro*) Zure borondate ta biotza ematen dizkidazula aski det. (*eskutik leunkiro elduaz*).

MALEN: Naizen guzia zurea dezula badakizu. Alargun baten doia beti neskaxarena baño zimelagoa... bestek koska egiña.

XALBADOR: Olako sagarrak gozoenak izan oi dira... Aspaldi amets egin nuena, kostalakosta nereganatutakoa. (*Samur*) Gure gazte-tako erromeri aietaz oroitzen al zera?

MALEN: Ez naiz oroituko bada! Aiek egunak! (*gogapen goibelez*) ezkontzera beartu nintzan... derriorrez.

XALBADOR: Aaztu itzazu orain gogapen txarrak. Orduan indarrez ezkon arazi bazinduten, orain gogoz eta biotzez esposatuko gera elkarrekin. Nai dezunean, gañera.

MALEN: Nere koñata Petrak zer esango duan kezkatzen nau. Au lotsa!

XALBADOR: Lotsa? Ez diozu iñori baimenik eskatu bearrik.

MALEN: Iñude, pozez beteko dala badakit. D. Justo ere gure alde degu.

XALBADOR: Paperak antola ditzanean apaizarengana joango gaituzu ta elizak artuko gaitu, atea zabal-zabalik.

MALEN: Bai, baiñan, elizkizuna goizean goiz, iñork ikusten ez gaituala, aitajaun eta amandreak ez ezik. Ez diogu beste iñori esan bear. Eta ez emengo elizan, Arantzazun...

XALBADOR: Baita ere Aitzkorriko ermitatxoan nai baldin badezu! Goi artako aizeak kezka ta estuasunak uxatuko dizkitzu.

MALEN: Bigarren beinkazioa lenengoa baño ohea izango al zait. Jainko maitea! Nere zoriona ezin sinista det.

XALBADOR: Luzaroan iraun dezu txarrean pijo! Onezko txanda etortzea bidezkoa da. Eta lanean eta pakean etxe ontan bertan elkarrekin biziko gera.

MALEN: Bai baiñan ez negoziotan sartu Bitor orrekin.

XALBADOR: Ez det ezertarako orren bearrik. Kontuak zurituko dizkiogu eta ez dedilla emen geiago agertu. Egin dezala «anka» bere hipoteka ta guzi! Bestela...

MALEN: Indar ori da, neri, emakume bakarrari palta zitzaidana. Nola egingo nuen bada tratu onik?

XALBADOR: Neronek ere amaika ernegazio paseak ditut jende zantar oriek zure irabaziak jaten zizkitzuela ikusiaz. Ori bukatu da.

MALEN: Arriturik nago, etxeokak ez dirala konturatu etorri geranik.

XALBADOR: Ez al gaude bada ondo, elkarri, barrengo sentiera esanez?

MALEN: Olako jardun gozua zer zan aazturik neukan aspaldidanik...

XALBADOR: Gaztezaroko egunak berriro gogora bear ditugu... (*eskutik eldu ta besarkatu naiez*).

MALEN: (*Lotsaz edo estaraziz*) Zaude, Xalba... D. Justo kaletik datorrela iru-ditu zait.

XALBADOR: (*Ateruntz begiratuaz*). Aguro egin du Notarioarenganako itzulia.

MALEN: Emen da, bai.

(*D. Justo alai ta irritsu sartuaz*)

D. JUSTO: Gure aldeko aizea.. ipar aize leguna degu gaur. (*Maia gañean kartera utziaz*). Egiña dago guzia!

XALBADOR: Ez genduen uste ain aguro itzulia egingo zenuanik...

MALEN: Bizkor dago oraindik D. Justo... ta gazte (*losintxaz*).

D. JUSTO: Asmoz bai, baiñan nere gaztetasuna pikotara joan zan aspaldidanik. Pausua txikitu zait eta ea notarioa utsegin nuen. Etxetik ateratzen zijoala, papera eskura eman diot, eta irakurritakoan, itza eman dit Hipoteka indarrrik gabe gelditzen dala. Beraz okerrena egin degu. Zuen kontratua biar bertan gertu jarriko duala agindu dit, gañera.

MALEN: Eskerrikasko D. Justo. Oraintxe asten naiz arnasa lasa artzen.

XALBADOR: Letradu azkar baten babesean.

D. JUSTO: Letradu bat, ona izan arren ezer gutxi da senar-gai on baten aldean.

XALBADOR: Ni ez nazu tratalari koskor bat besterik... Zuk lege korapilloak azkatu izan ez bazenitu.

MALEN: Biok ere ez zerate makalak, ala bearrez.



D. JUSTO: (*Xalbadori*) Baietz esan zagan. Hipoteka sare estutik ateratzea ez da gauza erreza izaten; ezkontza austeña añako zailla. Eta orain... libre zaudete nai dezuten guzira.

XALBADOR: Batek ba al daki! Lotuta dagonak azkatu nai izan oi du. Nik berriz, nere bizi guzian nere burua libre ikusaz orain lokarri billa nabil.

D. JUSTO: Lokarri biguñia ordea... (*Maleni*) Zuk, Malendenatik txasta dezu ta... txarra, ala ona aukeratzen ikasiko zenduen noski.

MALEN: Neretzat... bakartasuna gaitzik txarrena.

XALBADOR: Orrek erremedio erreza du.

D. JUSTO: Bai, Jainkoak gizona emakumearentzat egin omen zuan; eta emakumea gizonarentzat. Elkarren kidakoak zeraten ezkerro lenbaitlen ezkontzea dezute onena.

XALBADOR: Paperok egiten dituzuten bezin laister... ni... gertu nago (*Maleni begiratuaz*) baietza emateko... Malenek ezezkkoa esango ez didan ustez... (*irriparrez*).

MALEN: Naita ere ezin dezaket ezezkorik esan.

D. JUSTO: Zorionak bada, eta urte askotan (*Eskua emanaz*).

XALBADOR: Eskarrikasko, baiñan orretarako zuk aitaxi... padrinetza zure gain artu bear dezu.

MALEN: Oso ederki derizkiot. Eta amandre, Iñude jarri bearco degu, asarretuko bait zaigu bestela.

D. JUSTO: Nik ere ezin ezetzirik esan. Nerea da errezena.

XALBADOR: Borondatez egiten dana beti da eroso.

MALEN: (*Samurturik*) Zenbat urte nabaitu ez dedala gaur ainbat barrenpozirik! (*bat batean goibelduaz*) Baiñan... nere aur gaixoak azturirik dauzkadala gogoratzen zait. Ama naiz...

XALBADOR: Zure aur guziak ni aitatzat aitortzea nai nuke...

MALEN: Zaudel!... (*jende soñua oarturik*) Etxekoak etorriak gerala konturatu dirala uste det...

D. JUSTO: Bai, nere andreak ere or izan bear du. Aren abotsa entzuten det.

(*Petra eta Edubijis sukaldetik sarturik*)

PETRA: Gu zai, sukaldean, eta bitartean, zuek emen. (*D. Justori*) Aguro egin dezu Juzgaduko itzulia.

EDUBIJIS: Iñor ez zalakoan, barrenen giñan, aurrak zaintzen.

D. JUSTO: Ondo egin dezute lasa itxoiten egotea. Eta orain berri on bat eman bear dizuet.

PETRA: Noizbait bear albiste pozgarriren bat. Nere diru laguntzaz baliatu bazera... Gaitz erdi...

D. JUSTO: Ez bada. Azkenean ez da iñoren laguntza bearrik izan. Berez antola da guzia.

EDUBIJIS: Mirariren bat orduan?

D. JUSTO: (*Emazteari begiratuaz*) Bai, andretxoa, bai, amorioaren miraria.

PETRA: Zer? (*arrituta*) Ortarako eskeñi al nizun dirua?

D. JUSTO: Beranduxko iritxi giñan, Petra. Aurrea artu bait ziguten.

PETRA: Ez naiz jabetzen... diozunaz... Ez det ulertzen.

D. JUSTO: Gauza erreza... maite-ipuia dala tartean. Garbiago nai badezu zera... Malen eta Xalbador ezkontzen dirala.

PETRA: (*Txundituta*) Zer?... baiñan...

EDUBIJIS: (*Pozkarioz*) Entzun al dezu? Gutxiena uste genduena. Berri alai orrek poztu egin bear gaitu Petra! Zorionak eman!

PETRA: (*Zapuztuta*) Arazo oriek ez dira ain arin egiten. Alargun izanda...

EDUBIJIS: Justok adieraziko dizu nola izan dan.

D. JUSTO: Egia aitortzeko, oso bidezko ta egokia derizkiot artu duten erabakia. Ondoenik berak esango dizute. (*Bazter batean dauden Xalbador eta Maleni otsegiñez*).

MALEN: Bai, ez degu isil gordeka ibilli nai. Guzia D. Justok esan bezela da. Ezkontzen gera.

XALBADOR: Egun gutxi barru gañera, Malen eta biok senar-emazte izango gaituzu Jainkoaren eta gizonen aurrean.

EDUBIJIS: Kristau onak bezela jokatzeko da ori. (*Espos-gaiari*) Urte askotarako.

XALBA-MALEN: Eskarrikasko! Eskarrikasko.

EDUBIJIS: (*Musindurik eta itzik bage dagon Petrari*) Ez dezu orrela jarri bear Petra! Elizaren bedeinkapena artzera doaz.

PETRA: Nik ez det ezer jakin nai (*bat batean abituaz*) Etxera noa!

EDUBIJIS: Baiñan, Petra (*Jarraiturik*)...

D. JUSTO: Geldi zaitetz. Ez dezu asarretzeko ziorik.

PETRA: (*Buru itzuliaz*) Aldez aurretik jakin araztea merezi nuela uste det. (*arro guzioi, eskubi-ekerrera begiratuaz*) Ez nazute geiago, nere anaiaarena izan zan etxe ontan ikusiko... (*atetik Maleni, zorrotz*) Ez neri geiago «koñata» deitu (*bijoa*).

EDUBIJIS: Petra! ez orrela joan! (*ondoren dijoakiola*).

MALEN: Gure erabakia gaizki artuko zuala bildur nintzan. Besten zoriona ezin eraman duan orietako bait degu.

XALBADOR: Ainbat okerrago beretzat. Ez det uste ezertan falta diogunik.



D. JUSTO: Gajoa ezaguera eza da, iritzi estukoa ta errez sumintzen dana.
Gero damutuko zaio.

XALBADOR: Bestela ez luke konfesoreari zer esanik izango.

MALEN: Ala da. Utzi zagun pakean. Ezer jakin nai gabe joan nai izan duan ezkerre Iñude ta Anastasiori berri emango diegu.
(*sukaldeko atetik otsegñez*) Iñudeee!, Anastasioo!...

D. JUSTO: (*Xalbadori*) Eztaiak gertu bear al dituzute?

XALBADOR: Ori ez, gauzak isilik, soñurik bage egitea dagokigu. Lenago aitatu dizugunez, zu aita bitzi izatea eskertuko genuke.

D. JUSTO: Ez badidazute geiago eskatzen, an izango nazute.

XALBADOR: Zure itzala bearrezkoa zaigu.

MALEN: (*Sukaldeko atetik Iñude ta Anastasiorekin sartuaz*). Etorri zaitetze, etorri onuntz! Kanpotik jakin aurretik, berri on bat eman nai dizuet-eta: Juzgaduko auzia zuritu dala eta gure etxeak aurrera jarraituko duala «purru» egiteko beldurrik bage.

ANASTASIO: Antza eman diot orrenbeste jende, etxe ontan sartu-atera zebilela. Diru usaiera, noski. Lasa nengon.

IÑUDE: Zaude isilik gizona. Zure larrian prakak zintzilik daramazkitzu oraindik-eta. (*Maleni*) Zer geiago?...

MALEN: (*zalantzan*) Ba... Xalbador eta biok ezkontzen gerala.

XALBADOR: Bai izeba!

ANASTASIO: Ori berria ezik albistia ere, bada. Tunpatekoa!

IÑUDE: (*Pozez zoratzten*) «Etxefuegoak» botako ditugu, bai! Bejoandizuela!
(*Maleni musu eman eta besarkatuaz*) Ene laztana! Zuk atera dituzu eltzetik babak! Nere poza!

XALBADOR: Ez geiegi poztu izeba! gaixotuko zera-ta... amandretzat gure ezkontza egunean bear zaitugu.

IÑUDE: Utzi zaidazu biotza lasatzen illoba (*laztanduaz*) Pozak ez dit kalterik egiten. (*Xalbadori belarritik tiraka*) A pikaro! jokalaria! Aspaldi antzeman nion zuk egingo zenduala ordago (*Malen eta Xalbadoren tartean jarririk*)

D. JUSTO: Kartak maira bota ta gero guziok gera asmatzaille.

XALBADOR: Eskutik irabazi det. Garbi asko.

D. JUSTO: Egia da. Ta zuen pozaz ase zaitetzen uzten zaituet (*abituaz*)
Laister arte, beraz. Beste egitekoak baditut-eta.

MALEN: Zerbait artzera ez al du geldi nai, D. justo?

D. JUSTO: Orain, ez, eskarrikasko. Urrengo batez izango da.

IÑUDE: Aurrak ikusteko gogo sartu zait, etxeoandre...

MALEN: Ni ere banoa... baiñan lenago...

XALBADOR: Kaleraño lagunduko zaitut D. Justo (*bioa elkarrekin abituaz*)

ANASTASIO: (*dagon bazterrek igituaz*) Gaur, ez dit neri iñork, zakurrari aña kaso egiten. Onena anka egitea izango det, tabernara, jakiña. An bait dago nere gutzi guzia...

MALEN: (*Bat batean guzien aurrean jarririk*) Ez, ez, emendik ez da iñortxo aterako mokautxo bat artu ta txurrut egin gabe. Busti zagun gaurko eguna.

XALBADOR: Etxekoandre agintzen du.

D. JUSTO: Ezin ezezkorik esan, orduan. Jan eta edan zagun zuen osasunarako.

ANASTASIO: Azkenean neri arrazoi eman bear. Ori izan bait da nere betiko legea.

IÑUDE: Orretarako beti gertu zaude bai. Atoz orain nerekin sukaldera, pusken billa.

ANASTASIO: Noiz bildurtu nau, ni, lanak?... (*biak sukaldeko atetik dijoazelarrik*).